

**Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa**  
**Programación didáctica anual/de curso**

<b>ikastetxea:</b> <i>centro:</i>	Nuestra Señora Del Rosario	<b>kodea:</b> <i>código:</i>	014583
<b>etapa:</b> <i>etapa:</i>	Lehen Hezkuntza	<b>zikloa/maila:</b> <i>ciclo/nivel:</i>	2. zikloa 4.maila
<b>arloa/irakasgaia:</b> <i>área / materia:</i>	Euskara eta Literatura		
<b>osatutako arloak/irakasgaiak</b> <i>áreas/materias integradas</i>			
<b>diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak</b> <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia.</li> <li>2. Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.</li> <li>3. Kompetentzia motorra.</li> <li>4. Teknologiarako kompetentzia.</li> </ol>		
<b>irakasleak:</b> <i>profesorado:</i>	Gorka Kareaga/Leire Fernández	<b>ikasturtea:</b> <i>curso:</i>	2020/21

**Zeharkako kompetentziak / Competencias transversales:**

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
5. Izaten ikasteko kompetentzia.

<b>helburuak</b> <i>objetivos</i>	<b>ebaluazio-irizpideak</b> <i>criterios de evaluación</i>
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Hizkuntzaren zenbait erabilera-eremutan sortutako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, zenbait motatako komunikazio-egoerei aurre egiteko.</li> <li>2. Norberaren esperientziatik gertueneko esparruetan eraginkortasunez, errespetuz eta elkarrekin lan egiteko gogoz bai ahoz eta bai idatziz komunikatzeko gai izatea, unean uneko komunikazio-premiei behar bezala erantzuteko.</li> <li>3. Hizkuntzen erabileraren oinarrizko konbentzio eta arauetara buruz gogoeta egitea, eta konbentzio zein arauok behar bezala aplikatzea, testuak ulertzeko eta sortzeko prozedura nagusiak aintzat hartuta.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li><b>1. Harreman interpertsonaletan, hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko euskarri eta genero desberdinetako ahozko testuak ulertzea (ikaslearen bizipenetatik gertuen daudenak, batik bat), eta horretan, testuen zentzu orokorrari igartzea, ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak ondo bereiziz eta kasuan-kasuan lortu beharreko helburuak erdiesteko informazio pertinentea hautatuz.</b> <ol style="list-style-type: none"> <li><b>1.1. Badaki ahozko testuak zer generotakoak diren identifikatzen.</b></li> <li><b>1.2. Gai da testuaren zentzu orokorra ulertzeko.</b></li> <li>1.3. Igartzen dio gaiari eta igorlearen asmoari.</li> <li><b>1.4. Gai da ideia nagusiak bereizteko.</b></li> <li><b>1.5. Gai da entzuketa-lanen helburuarekin bat datorren informazioa identifikatzeko eta lortzeko.</b></li> </ol> </li> </ol>

4. Hainbat generotako literatura-testuak irakurtzea eta entzutea, eta, hala, literaturaz gozatzen ikastea, horrek sentsibiltate estetikoan aurrera egiteko, norberaren hizkuntza-ondarea aberasteko eta identitate kulturala eraikitzeo aukera ematen duen aldetik.

5. Eskolako eta norbera bizi den inguruneo hizkuntza-aniztasuna aintzat hartzea, aniztasun horrekiko jarrera positiboa barneratzeko, eta hizkuntzak komunikaziorako baliabide eraginkortzat eta kultura-ondareztat hartzea, portaera linguistiko enpatikoak garatzeko eta euskara eguneroko bizitzan erabiltzeko.

6. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, informazioa lortzeko, eta elkarrekin komunikatzeko eta kooperatzeko.

7. Norbaiten laguntzarekin norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntza eta ikasgai batzuetan ikasitako komunikazio-ezaguerak eta -estrategiak transferitzeko, eta norberaren ikaskuntza-gaitasunean konfiantza izatea, komunikaziorako konpetentzia hobetzeko.

**1.6. Gai da informazioa erregistratzeko irakasleek emandako zenbait baliabide modu eraginkorrean erabiltzeko: fitxak, taulak, kontzeptuzko mapak...**

1.7. Badaki gertaerak eta iritziak bereizten.

1.8. Igartzen die oso nabarmenak diren sexista eta bazterketa-adierazpenei.

1.9. Gai da ahozko testuak ulertzean sortzen zaizkion zalantzak argitzeko eskura dituen estrategia egokienak erabiltzeko.

**1.10. Badaki besteei aktiboki entzuten.**

**1.11. Badaki besteei errespetu osoz entzuten.**

**2. Harreman interperersonaletan, hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko euskarri eta genero desberdinetako idatzizko testuak ulertzea (ikaslearen bizipenetatik gertuen daudenak, batik bat), eta horretan, testuen zentzu orokorrari igartzea, ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak ondo bereiziz eta kasuan-kasuan lortu beharreko helburuak erdiesteko informazio pertinetea hautatuz.**

**2.1. Badaki ikasgelan landu ohi diren idatzizko testuak zer generotakoak diren identifikatzen.**

**2.2. Gai da testuaren zentzu orokorra ulertzeko.**

2.3. Erraz igartzen dio gaiari eta igorlearen asmoari.

**2.4. Gai da ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizteko.**

**2.5. Gai da irakurgaiaren helburuarekin bat datorren informazioa identifikatzeko eta lortzeko.**

**2.6. Gai da informazioa erregistratzeko irakasleek emandako zenbait baliabide erabiltzeko: fitxak, taulak, kontzeptuzko mapak...**

2.7. Badaki gertaerak eta iritziak bereizten.

2.8. Gai da testutik abiatuta oso nabarmenak diren inferentziak egiteko.

2.9. Erraz igartzen die bazterketa-adierazpenei.

**2.10. Gai da idatzizko testuak ulertzen saiatzean sortzen zaizkion arazoak konpontzeko eskura dituen estrategia egokiak erabiltzeko.**

	<p><b>2.11. Ondo uztartzen ditu, idatzizko testuak ulertu nahian ari dela, elementu grafiko eta ikonikoak.</b></p> <p>2.12. Ondo erabiltzen du, testu digitalak ulertu nahian ari dela, elementu multimodalen esanahia.</p> <p>2.13. Gai da komunikazio-egoeraren ezaugarriak modu gidatuan aztertzeko: hartzailea, testuaren helburua...</p> <p><b>2.14. Komunikazio-egoera zein den kontuan hartuta, erabaki pertinenteak hartzen ditu: erregistro nahiz euskarri egokiak hautatzen ditu...</b></p> <p><b>2.15. Badaki ahozko testuetako edukia antolatzen, eta, horretarako, oharrak hartzen ditu, eskemak eta gidoiak egiten, eta abar.</b></p> <p>2.16. Badaki hainbat iturri erabiliz informazioa bilatzen, eta gai da, bere helburua zein den kontuan hartuta, informazio garrantzitsuena hautatzeko.</p> <p><b>2.17. Ahozko testua txukun-txukun aurkezten du.</b></p> <p><b>2.18. Ahoskera garbia dauka.</b></p> <p><b>2.19. Gai da bere gorputz-jarrera eta keinuak behar beste kontrolatzeko.</b></p> <p><b>3. Eguneroko egoera interaktiboetan parte hartzea, eta horretan, komunikazio-trukearen oinarriko arauak errespetatzea.</b></p> <p><b>3.1. Bere ideien, gertaeren, bizipenen, sentimenduen eta iritzien berri emanez parte hartzen du komunikazio-interakzioetan.</b></p> <p>3.2. Badaki egoerarekin bat datorren hizkuntza-erregistroa erabiltzen.</p> <p><b>3.3. Hitz egiteko txandak errespetatzen ditu.</b></p> <p><b>3.4. Oso adi entzuten die solaskideei, eta haiek esandakoari estu lotuta hitz egiten du.</b></p> <p><b>3.5. Garrantzi handiko galdera eta ohartarazpenak egiten ditu.</b></p> <p>3.6. Badaki testuinguruarekin bat datozen hitz eta adierazpenak erabiltzen.</p> <p><b>3.7. Intonazio, gorputz-jarrera eta keinu egokiak erabiltzen ditu.</b></p> <p><b>4. Harreman interpersonean, hedabideetan, hezkuntzan eta literaturan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko</b></p>
--	--

**idatzizko testu soil-soilak paperean nahiz euskarri digitalean sortzea norbaiten laguntzarekin.**

- 4.1. Gai da komunikazio-egoeraren ezaugarriak modu gidatuan aztertzeko: hartzailea, testuaren helburua...
  - 4.2. Komunikazio-egoera zein den kontuan hartuta, erabaki pertinateak hartzen ditu: erregistro nahiz euskarri egokiak hautatzen ditu...
  - 4.3. Badaki idatzizko testuetako edukia antolatzen, eta, horretarako, oharrak hartzen ditu, eskemak eta gidoiak egiten, eta abar.**
  - 4.4. Badaki hainbat iturri erabiliz informazioa bilatzen, eta gai da, bere helburua zein den kontuan hartuta, informazio garrantzitsuena hautatzeko.**
  - 4.5. Txukun-txukun sortzen ditu idatzizko testuak.
  - 4.6. Testuko informazioa paragrafotan banatzen du.
  - 4.7. Oinarrizko kohesio-elementuak erabiltzen ditu: oinarrizko lokailuak, sinonimoak...**
  - 4.8. Oinarrizko arau morfosintaktiko eta ortografikoak errespetatzen ditu.**
  - 4.9. Gai da idatzizko testuak berrikusteko, horiek hobetu eta berridazteko.
  - 4.10. Gai da modu gidatu eta kolaboratzailean idatzizko testuak berrikusteko.
- 5. Testu, enuntziatu eta hitzak elkarrekin alderatu eta transformatu, eta hizkuntza-sistemari eta hizkuntzaren erabilera-arauei buruz gogoeta egiteko gai izatea, eta ezaguera horiek ulermen-arazoak konpontzeko eta testualizazio- eta berrikusketa-prozesuak hobetzeko erabiltzea.**
- 5.1. Gai da, zikloan zehar landutako testuetatik abiatuta, testuinguruarekin eta testuarekin lotutako hizkuntza-adierazle batzuk identifikatzeko.
  - 5.2. Gai da bere ekoizpenetan oinarrizko sintaxi-egiturak identifikatzeko eta erabiltzeko.**
  - 5.3. Ondo identifikatzen ditu bai gramatika-kategoriak (izena, izenondoa,

aditza) eta bai oinarritzko gramatika-arauak.

**5.4. Bere ekoizpenetan oinarritzko arau morfosintaktikoak errespetatzen ditu: deklinabidea, komunztadura...**

**5.5. Gai da, proposatutako irizpideetan oinarrituta, testu soil-soilak zuzen eta egoki osatzeko eta transformatzeko.**

5.6. Bere ekoizpenetan hizkuntza-arauak errespetatzearen aldeko interesa du.

5.7. Eskolako hizkuntzan landutako ezaguera linguistikoak darabiltza gainerako hizkuntzetan egin beharreko ulermen- eta ekoizpen-lanak hobetzeko.

**6. Zikloan zehar landutako oinarritzko terminologia linguistikoaren berri jakitea, eta terminologia hori testuak ulertzearekin eta sortzearekin lotutako hizkuntzaren erabilerari buruzko jardueretan erabiltzea.**

6.1. Zikloan zehar landutako oinarritzko terminologia ulertzen du, eta gai da hizkuntzari buruzko gogoeta-jardueretako azalpenei eta jarraibideei jarraitzeko.

6.2. Zikloan zehar landutako oinarritzko terminologia darabil hizkuntzari buruzko gogoeta-jardueretan.

**7. Irakurtzeko ohitura izatea, eta literatura gozamen-iturritzat eta mundua ezagutzeko bidetzat hartzea.**

7.1. Proposatzen zaizkion literatura-testuak irakurri eta gozamen-iturritzat hartzen ditu.

7.2. Literatura-lanen edukia bere bizipenekin lotzen du.

7.3. Aktiboki parte hartzen du irakurritako literatura-testuei buruzko solasaldietan, eta bere esperientzien eta ikuskeren berri ematen du.

**7.4. Ikasgelako nahiz eskolako literatura-jardueretan parte hartzen du.**

7.5. Irakurketaren aldeko interesa du.

**8. Gai izatea bai haur-literatura klasikoko eta bai gaur egungo haur-literaturako testuak ulertzeko eta erreproduzitzeko, eta horretan, ahozko nahiz idatzizko literaturari eta konbentzio literario**

**espezifikoei buruzko norberaren ezaguerak erabiltzea.**

- 8.1. Bere interesekin bat datozen literatura-generoetako testuak arreta handiz irakurtzen eta entzuten ditu.
- 8.2. Aktiboki parte hartzen du denen artean adostutako esanahiak eraikitzeke negoziazio-prozesuetan.

**8.3. Gai da ahozko eta idatzizko literatura-testuen zentzu orokorra ulertzeko.**

- 8.4. Gai da bai ahozko eta bai idatzizko literatura-testuen zenbait ezaugarri identifikatzeko.

**9. Norberaren inguruan hitz egiten diren hizkuntzak identifikatzea eta balioestea.**

- 9.1. Gai da inguruan dituen pertsonen hizkuntza-errepertorioaren parte diren munduko hizkuntzak identifikatzeko.
- 9.2. Norberaren ikasgelako, eskolako eta etxe inguruko errealitate linguistikoa zein den jakitea, eta errealitate linguistiko hori balioestea.
- 9.3. Badaki zein den bere inguruan hitz egiten diren hizkuntzen egoera: estatusa eta ezaguera- eta erabilera-maila.
- 9.4. Gai da ikasgelan nahiz eskolan hitz egiten diren hizkuntzen erabilera-ohiturak aztertzeke, balioesteko eta ohitura eraikitzaileak proposatzeko.
- 9.5. Gai da bere inguruan kontaktuan dauden hizkuntzen arteko interakzio-egoerak identifikatzeko.
- 9.6. Bere inguruko hizkuntza-aniztasuna kultura-aberastasuntzat hartzen du.

**10. Ohitura eta jokabide linguistiko asertibo eta enpatikoak hartuz joatea, eta eskolan euskaraz hitz egitearen aldeko jarrera izatea.**

- 10.1. Eskolako komunikazio-trukeetan modu proaktiboan erabiltzen du euskara.**
- 10.2. Eskolan euskaraz eta euskararen alde antolatutako jardueretan parte hartzen du.
- 10.3. Euskara erabiltzearen aldeko jarrera asertiboa eta enpatikoa du.**

	<p><b>11. Informazioa bilatzeko, hautatzeko, kudeatzeko eta komunikatzeko prozesuan, norbaiten laguntzarekin informazioaren teknologiak erabiltzeko gai izatea, eskolan egunero sortzen zaizkion premiei aurre egiteko.</b></p> <p>11.1. Gai da informazioa bilatzaileetan eta beste iturri batzuetan modu gidatuan bilatzeko eta aurkitzeko.</p> <p>11.2. Gai da baten baten laguntzarekin informazioa ordenagailu bidez nahiz online gordetzeko eta berreskuratzen.</p> <p>11.3. Ahozko nahiz idatzizko testuak eta testu multimodalak ekoizteko beharrezkoak diren baliabide eta aplikazioak erabiltzen ditu, bai bakarka eta bai taldean.</p> <p>11.4. Gai da, irizpide batzuei jarraituz eta elkarlanean arituz, iturrien fidagarritasunaz gogoeta egiteko.</p> <p><b>12. Gai izatea norberaren ikaskuntza linguistikoaz gogoeta egiteko, eta horretan, norberaren ikaskuntza-gaitasunean konfiantza izatea, horrela nor bere burua erregulatzen ikasteko.</b></p> <p>12.1. Modu gidatuan erabiltzen ditu eskolako hizkuntza nagusia ikastean landutako erregulazio-estrategiak, gainerako hizkuntzen ikaskuntza hobetzeko.</p> <p>12.2. Bai bere eta bai besteen sormen-lanak berrikusteko eta hobetzeko zereginetan parte hartzen du modu gidatuan, eta besteen ekarpenak balioesten ditu.</p> <p>12.3. Gai da hizkuntzarako konpetentzian aurrera egiteko aukera ematen dioten egoerak eta jarduerak modu gidatuan identifikatzeko.</p> <p>12.4. Huts egitea hizkuntzak ikasteko prozesuaren ezinbesteko partetzat hartzen du, eta bere burua hobetzearen aldeko jarrera du.</p> <p>12.5. Hizkuntzen ikaskuntzan aurrera egitearen aldeko jarrera du.</p>
--	---

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

**SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS** [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

Gaur egungo egoera dela eta, hainbat eduki eta baliabide metodologiko egokituak izan dira.

lazko ikasturteko hirugarren hiruhilabetean landu ez ziren, eta oinarritzkoak ziren zenbait eduki gehituak izan dira, eta irailean hauen birpasaketa, berreskurapen eta errefortzu jarduerak burutu dira.

Konpetentzietan oinarritutako ikuspuntuan, edukiak ikasleak behar dituen baliabideak dira, egoera/arazoa konpontzeko gai dela erakusteko. Hiru eduki-mota bereiztea komeni da: adierazpenekoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak baina azpimarratu beharra dago hiru eduki-motak banaezinak direla ikaskuntza-prozesuan. Unitate didaktikoen edukiak hautatzeko, zenbait irizpide kontuan hartu dira: garrantzi soziokulturala, garrantzi zientifikoa, funtzionaltasuna eta adierazgarritasuna eta egokitasun pedagogikoa.

Euskararen arloan, sei eduki multzo bereiz daitezke:

- 1. multzoa. Eduki komunak: zehar-konpetentziekin lotutakoak.
- 2. multzoa. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea.
- 3. multzoa. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea.
- 4. multzoa. Literatura-hezkuntza.
- 5. multzoa. Hizkuntza eta haren erabilerei buruzko gogoeta.
- 6. multzoa. Hizkuntzaren alderdi soziala.

Kurtsoa 12 unitate didaktikoetan banandu egin da, hiruhileko bakoitzeko 4 unitate landuko ditugu.

#### 1. UNITATE DIDAKTIKOA. Elkarrekin hobeto!

- **Jakin**
  - Hitzen ordena
  - Letra larria
  - Hitz polisemikoak



- **Egiten jakin**

- o Unitateko gaiari buruz mintzatzea, esperientzia pertsonalak azaltzea eta pertsonak deskribatzea.
- o Iragarkia aztertzea.
- o Ipuina irakurtzea eta ulertzea: *Ni ez naiz normala*.
- o Olerkia irakurtzea eta ulertzea: *Neure buruari begira*.
- o Biografia irakurtzea eta ulertzea: *Greta Thunberg*.
- o Euskararen ordena neutroa aztertzea eta lantzea.
- o Galdegaia aztertzen hastea.
- o Baiezko eta ezezko ordenaz jabetzea eta zuzen erabiltzea.
- o Letra larriaren erabilera berrikustea eta lantzea.
- o Mezu elektronikoa idaztea.
- o Azalpen-testua idaztea.
- o Hitzen adierak bereiztea.
- o **Norbere burua aurkeztea.**
- o **Gai bati buruz hausnartzea.**
- o **Koplatxoak asmatzea eta idaztea.**
- o **Iritziak ematea eta eztabaidatzea.**

- **Balioak**

- o **Itxura zaindu beharra baloratzea eta itxurakeria bereiztea.**
- o Besteak eta haien iritziak eta gustuak errespetatzea eta baloratzea.

2. UNITATE DIDAKTIKOA. Bazterrik bazter.

- **Jakin**

- o Zenbatzaileak.
- o *-np-, -nb-*.
- o Atzizkiak: *-tasun, -keria, -kuntza, -kizun*.

- **Egiten jakin**

- o **Unitateko gaiari buruz mintzatzea, esperientzia pertsonalak azaltzea eta nahiak adieraztea.**
- o Informazio-orria aztertzea.
- o **Ipuina irakurtzea eta ulertzea: *Baltzolako Sugo*.**
- o **Olerkia irakurtzea eta ulertzea: *Larrazkeneko altxorak*.**
- o Zenbatzaileen erabilera berrikustea.
- o Hitz zenbakarriak eta neurgarriak bereiztea.
- o Zenbakaitzak diren hitzak zuzen ematea.
- o Neurriak zuzen ematea.
- o *-np-* eta *-nb-* kontsonante multzoak dituzten hitzak euskaraz zuzen idaztea.
- o Iritzi-testu laburra idaztea.
- o Informazio-orria aztertzea eta idaztea.
- o Atzizkiak zer diren berrikustea eta zuzen erabiltzea.
- o Olerkitxoak asmatzea eta idaztea.
- o Besteen lekuan jartzea.
- o Iritziak ematea eta eztabaidatzea.

– **Balioak**

- o Natura zaintzeko jarrera indartzea eta jokabide egokiak sustatzea.
- o Enpatiazko jarrerak indartzea.
- o Besteek diotena arretaz eta etenarazi gabe entzutea eta haien iritzia baloratzea.

3. UNITATE DIDAKTIKOA. Mila aukera.

– **Jakin**

- o Izenordainak.
- o *H* letra.
- o Eremu semantikoa.

– **Egiten jakin**

- o Unitateko gaiari buruz mintzatzea, esperientzia pertsonalak azaltzea eta besteak limurtzea.
- o Liburu baten fitxa aztertzea.
- o Ipuina irakurtzea eta ulertzea: *Liburuzainaren bahiketa*.
- o Olerkia irakurtzea eta ulertzea: *Igarkizuna*.
- o Egitaraua irakurtzea eta ulertzea: *Kultura asteburuaren egitaraua*.
- o Pertsona-izenordainen erabilera berrikustea eta lantzea.
- o Izenordain zehaztugabeen erabilera berrikustea eta lantzea.
- o *H* letraren erabilera lantzea eta akatsak saihestea.
- o Liburu baten fitxa idaztea.
- o Gertakariak idatziz azaltzea.
- o Eremu semantikoa zer den aztertzea.
- o Hitzren eremu semantikoa bereiztea.
- o Gai bati buruz hausnartzea.
- o Igarkizuna asmatzea eta idaztea.
- o Norbere emozioez mintzatzea.
- o Binaka eta taldeka lan egitea.
- o Elkar limurtzea.

– **Balioak**

- o Irakurzaletasuna indartzea.
- o Inor limurtzeko orduan, geure ikuspegira makurtzen ez behartzea eta zintzotasunez jokatzeko.

4. UNITATE DIDAKTIKOA. Mundu zabalean

– **Jakin**

- o Determinatzaileak.
- o *S*, *x* eta *z*.
- o Atzizkiak: *-ar*, *-tar*, *-dar*.

– **Egiten jakin**

- o Unitateko gaiari buruz mintzatzea, esperientzia pertsonalak azaltzea eta iritzia ematea.
- o Egitaraua aztertzea.
- o Ipuina irakurtzea eta ulertzea: *Gabon-opariak*.
- o Hitz-jokoak irakurtzea eta ulertzea: *Bat, bat, bat*.
- o Artikuluaren erabilera berrikustea.
- o Erakusleen erabilera berrikustea.
- o Zenbatzaile zehaztuak eta zehaztugabeak bereiztea eta haien erabilera lantzea.
- o Mugagabea zuzen erabiltzea.
- o S, x eta z txistukarien erabilera lantzea eta zuzen ahoskatzea.
- o Egitaraua idaztea.
- o Albistea aztertzea eta idaztea.
- o Jatorri-atzizkiaren erabilera aztertzea eta lantzea.
- o Hitz-jokoa asmatzea eta idaztea.
- o Besteen lekuan jartzea.
- o Iritziak ematea eta eztabaidatzea.
- o Talde-lanean aritzea, proiektu bat burutzeko.
- **Balioak**
  - o Denbora antolatzea guztiz garrantzitsua dela ohartzea eta hori egiteko ohitura hartzea.
  - o Enpatiazko jarrera erakustea.
  - o Helburu bat lortzeko edo proiektu bat burutzeko, estrategiak adostea eta elkarrekin lan egitea.

## 5. UNITATE DIDAKTIKOA. Kontu-kontari

- **Jakin**
  - o Izenondoak eta adberbioak.
  - o Puntuaren erabilera.
  - o Esapideak.
- **Egiten jakin**
  - o Unitateko gaiari buruz mintzatzea, esperientzia pertsonalak azaltzea eta zuzeneko kronikak egitea.
  - o Kritika-testua aztertzea.
  - o Antzezlanaren irakurtzea eta ulertzea: *Nork agintzen du?*
  - o Olerkia irakurtzea eta ulertzea: *Amona isildu da*.
  - o Azalpen-testua irakurtzea eta ulertzea: *Marraski bizidunak*.
  - o *Nolakoa?* eta *Nola?* galderen bidez, izenondoak eta adberbioak bereiztea.

- o Izenondoan eta adberbioen erabilera zuzena lantzea.
- o Puntuak, bi puntuak eta etenpuntuak noiz eta nola erabiltzen diren lantzea.
- o Film baten kritika idaztea.
- o Kexa-gutunaren egitura aztertzea eta gutuna idaztea.
- o Euskal esapide jatorrak ikastea eta erabiltzea.
- o Lan bat nola egiten den pentsatzea eta azaltzea.
- o Ipuina idaztea.
- o Besteen lekuan jartzea.
- o Binaka eta taldeka antzezpenak egitea.

– **Balioak**

- o Ikuskizunetan eta jendaurreko ekitaldietan izan beharreko jokabide zuzenak indartzea.
- o Eskola-jazarpena identifikatzea eta hari aurre egiteko mekanismoak lantzea.
- o Ikaskide guztiak errespetatzea eta haiekin zintzotasunez jokatzeko.

6. UNITATE DIDAKTIKOA. Batetik bestera

– **Jakin**

- o Aditza: NOR eta NOR-NORK.
- o *Tt, dd, ñ, ll.*
- o Interjekzioak.

– **Egiten jakin**

- o Unitateko gaiari buruz mintzatzea, esperientzia pertsonalak azaltzea eta neurriak adieraztea.
- o Kartela aztertzea.
- o Kontakizuna irakurtzea eta ulertzea: *Metroko abentura.*
- o Olerkiak irakurtzea eta ulertzea: *Nire hiriko poemak.*
- o NOR erako aditzen erabilera berrikustea eta lantzea.
- o NOR-NORK erako aditzen erabilera berrikustea eta lantzea.
- o *Tt* eta *dd* kontsonante multzoen erabilera eta ahoskera lantzea.
- o *Ñ* eta *ll* kontsonante bustien erabilera eta ahoskera lantzea.
- o Bidaia bati buruzko idazlantxoak egitea.
- o Iragarki laburrak idaztea.
- o Interjekzioen erabilera lantzea.
- o Interjekzioak testuinguru egokian erabiltzea.
- o Ipuina asmatzea.

- o Olerkitxoa asmatzea.
- o Iritziak ematea eta eztabaidatzea.

– **Balioak**

- o Legebidezko jarrera eta jokabide egokiak sustatzea.
- o Garraiobide publikoei zein bide-hezkuntzari dagozkien arauak gogoratu eta betetzea.
- o Besteak hitz egiten ari direla, adi entzutea eta txanda izatean hitz egitea.

7. UNITATE DIDAKTIKOA. Zer jan, hura izan

– **Jakin**

- o Aditza: NOR-NORI eta NOR-NORI-NORK.
- o *Ts, tx* eta *tz*
- o Atzizkiak: *-kada, -tza, -tsu*

– **Egiten jakin**

- o Unitateko gaiari buruz mintzatzea, esperientzia pertsonalak azaltzea eta aginduak ematea.
- o Menua aztertzea.
- o Ipuina irakurtzea eta ulertzea: *Suzko pastelak*.
- o Bertsoak irakurtzea eta ulertzea: *Lamikizko sukaldaria*.
- o Kartela irakurtzea eta ulertzea: *Munduko arrozak*.
- o NOR-NORI erako aditzen erabilera berrikustea eta lantzea.
- o NOR-NORI-NORK erako aditzen erabilera berrikustea eta lantzea.
- o *Ts, tx* eta *tz* txistukarien erabilera eta ahoskera zuzena lantzea.
- o Astebeteko menua idaztea.
- o Sukaldaritza-errezeta aztertzea eta idaztea.
- o Kantitate-atzizkien erabilera lantzea.
- o Jaki berezi bat asmatzea.
- o Izenburua asmatzea.
- o Iritziak ematea eta eztabaidatzea.

– **Balioak**

- o Elikadura-aztura egokiak indartzea.
- o Eskolan zein kanpoan antolaturiko talde-ekintzetan parte hartzeko interesa sustatzea.

## 8. UNITATE DIDAKTIKOA. Bizi-bizirik

### – Jakin

- o Aditzaren berrikusketa.
- o A itsatsia.
- o Maileguak.

### – Egiten jakin

- o Unitateko gaiari buruz mintzatzea, esperientzia pertsonalak azaltzea eta gogo-aldarteak adieraztea.
- o Zerrenda aztertzea.
- o Ipuina irakurtzea eta ulertzea: *Ttote*.
- o Olerkia irakurtzea eta ulertzea: *Xoria kantari*.
- o Aurreko bi unitateetan landutako aditzak berrikustea eta haien ezagutza finkatzea.
- o A itsatsia duten hitzak bereiztea eta zuzen erabiltzea.
- o Gutuna idaztea.
- o Eskemaren egitura aztertzea eta eskema egitea.
- o Maileguak eta euskal jatorriko hitzak bereiztea.
- o Maileguak zuzen erabiltzea.
- o Ipuinari beste amaiera bat asmatzea.
- o Hitz-jokoa asmatzea eta idaztea.
- o Binaka eta taldeka lan egitea.
- o Talde-lanean aritzea, proiektu bat burutzeko.

### – Balioak

- o Helburu bat lortzeko edo proiektu bat burutzeko, estrategiak adostea eta elkarrekin lan egitea.
- o Natura eta animaliak zaintzeko jarrera indartzea eta jokabide egokiak sustatzea.

## 9. UNITATE DIDAKTIKOA. Laguntzeko prest!

### – Jakin

- o Ahalera eta ezintasuna
- o Marratxoa hitz elkartuetan
- o Hitz paronimoak eta hitz homonimoak

### – Egiten jakin

- o Unitateko gaiari buruz mintzatzea, esperientzia pertsonalak azaltzea eta argudiatzea.
- o Etiketa aztertzea.
- o Ipuina irakurtzea eta ulertzea: *Tom margolari lanetan*.
- o Olerkia irakurtzea eta ulertzea: *Pintore ameslaria*.
- o Jarraibideak irakurtzea eta ulertzea: *Gauza bakoitza bere tokian*.
- o Ahalerazko egiturak ezagutzea eta haien erabilera lantzea.

- o Ahalerazko aditz laguntzaileen erabilera lantzea.
- o Hitz elkartuetan, marratxoa noiz erabili behar den aztertzea.
- o Behar denetan, hitz elkartuetan marratxoa zuzen erabiltzea.
- o Kartela egitea.
- o Ipuina aztertzea eta idaztea.
- o Hitz paronimoak zer diren aztertzea eta horiek lantzea.
- o Hitz homonimoak zer diren aztertzea eta horiek lantzea.
- o Koloreak eta kontzeptuak lotzea.
- o Kutxak apaintzea.
- o Norbere emozioei buruz mintzatzea.
- o Iritziak eman eta eztabaidatzea.
- o Taldean lan egitea

– **Balioak**

- o Etxeko eta eskolako lanetan parte hartzeko jarrera indartzea.
- o Behar izanez gero, laguntza eskatzea eta eskaintzea.

10. UNITATE DIDAKTIKOA. Denbora-pasa

– **Jakin**

- o Denbora eta neurriak nola adierazi.
- o Koma eta puntu eta koma.
- o Atzizkiak: *-bera, -zale, -kor, -gaitz, -erraz, -ezin*.

– **Egiten jakin**

- o Unitateko gaiari buruz mintzatzea, esperientzia pertsonalak azaltzea eta prozesuak azaltzea.
- o E-posta aztertzea.
- o Ipuina irakurtzea eta ulertzea: *Zabor esekien museoa*.
- o Olerkia irakurtzea eta ulertzea: *Benetako bihotza*.
- o Denbora adierazteko egiturak aztertzea eta lantzea.
- o Neurriak adierazteko egiturak berrikustea eta finkatzea.
- o Koma noiz erabiltzen den aztertzea eta lantzea.
- o Puntu eta koma noiz erabiltzen den aztertzea eta lantzea.
- o E-posta idaztea.
- o Pertsonaien arteko elkarrizketa idaztea.
- o Joera-atzizkien erabilera lantzea.
- o Ipuinetan oinarrituriko igarkizunak asmatzea.
- o Norbere emozioei buruz mintzatzea.
- o Binaka eta taldeka lan egitea.

– **Balioak**

Teknologia norbere mesederako erabiltzen ikastea, mendekotasun-joerak alde

11. UNITATE DIDAKTIKOA. Aspaldiko oroigarriak

– **Jakin**

- o Adierazpenak eta aginduak.

- o S, x, z, ts, tx, tz.
- o Atzizkiak: *-gailu, kari, -ki, -kin*.
- **Egiten jakin**
- o Unitateko gaiari buruz mintzatzea, esperientzia pertsonalak azaltzea eta kausak eta ondorioak adieraztea.
- o Bertsoak aztertzea.
- o Irakurragia irakurtzea eta ulertzea: *Marco Polorekin berbetan*.
- o Olerkia irakurtzea eta ulertzea: *Erlojuarena*.
- o Albistea irakurtzea eta ulertzea: *Bermeoko Antzinako Azoka*.
- o Baiezko eta ezezko esaldien ordena berrikustea eta finkatzea.
- o Aginduak emateko esapideak eta aditz-formak lantzea.
- o Txistukarien erabilera eta ahoskera berrikustea eta finkatzea.
- o Ipuina idaztea.
- o Jarraibide-testuen ezaugarriak aztertzea eta jarraibideak idaztea.
- o Gaia, materia edo tresnak adierazteko atzizkien erabilera lantzea.
- o Gai bati buruz hausnartzea.
- o Albistea aztertzea.
- o Elkarrizketa asmatzea.
- o Iritziak eman eta eztabaidatzea.
- o Binaka eta taldeka lan egitea.
- **Balioak**
- o Antzinako kontuekiko eta historiarekiko interesa sustatzea.
- o Antzinako objektu eta artelanak baloratzea.
- o Besteak eta haien iritziak eta gustuak errespetatzea eta baloratzea.

## 12. UNITATE DIDAKTIKOA. Uda hemen da!

- **Jakin**
- o Galderak eta harridura.
- o Galdera- eta harridura-markak.
- o Esaera zaharrak.
- **Egiten jakin**
- o Unitateko gaiari buruz mintzatzea, esperientzia pertsonalak azaltzea eta iragarpenak adieraztea.
- o Kartela aztertzea.
- o Ipuina irakurtzea eta ulertzea: *Maskorretan*.
- o Olerkia irakurtzea eta ulertzea: *Bi gezur eta bi egi*.
- o Galde-perpausen egitura eta intonazioa lantzea.
- o Harridura-perpausen egitura eta intonazioa lantzea.
- o Galdera- eta harridura-markak galdera- eta harridura-perpausen amaieran erabiltzea.
- o E-posta idaztea.
- o Iritzi-gutunaren egitura aztertzea eta gutuna idaztea.



- o Esaera zaharrak ikastea.
  - o Esaera zaharren esanahia ezagutzea eta testuinguru egokietan erabiltzea.
  - o Planak asmatzea.
  - o Egiak eta gezurrak asmatzea.
  - o Iritziak ematea eta eztabaidatzea.
  - o Talde-lanean aritzea, proiektu bat burutzeko.
- **Balioak**
- o Norbere iritziak arrazoitzea eta era argian ematea, besteen aburuak errespetatuz.
  - o Helburu bat lortzeko edo proiektu bat burutzeko, estrategiak adostea eta elkarrekin lan egitea.

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

**METODOLOGÍA** [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

- Metodologia aktiboa eta ikasleen parte hartzea sustatuko duena erabiliko da. Ikasleen aurretiazko ezagupenak eta esperientziak hartzen dira abiapuntutzat, ikasleek euren ikaskuntza prozesu propioa eraiki dezaten, honetan aktiboki parte hartuz eta protagonistak izanik. Funtsezkotzat jotzen dugu ikasleen interes, eskaera, behar eta espektatibetatik abiatzea. Horregatik, ikaslearen errealitatetik hurbil dauden jarduerak bultzatuko dira.
- **Programazio ziklikoa**, etaparen helburu nagusiekin guztiz integratutakoa; eta **edukien hautaketa zorrotza**, aurreko ikasturteetan ikasitakoa sendotuko duena eta gai berrietarako ateak zabalduko dituena.
- **Ikasleen aniztasunari arreta:**  
Gure heziketaren oinarritzko printzipioetan, besteak beste, ikasle bakoitzaren erritmoa, motibazioa eta interesak kontuan hartzen dira.
- **Balioen heziketarekiko sentsibiltatea:**  
Jokabide eredu autonomoetarako sarbide mailakatuak eta ikasleen sozializazio gero eta handiagoak beharrezkoa egiten dute balioen hezkuntza.
- **Hezkuntza-prozesuaren balioestea:**  
Ebaluazioa modu holistikoan ikusten da, hots, hezkuntza-prozesuaren alderdi guztiak aztertzen ditu eta atzeraelikadura ahalbidetzen du, jarduera bere osotasunean berregituratzeko aukera ematen duen informazio zehatzaren ekarpena.  
Hainbat ikaskuntza testu genero konkretuen bitartez barneratuko dituzte ikasleek (komikiak, ipuinak, askotariko istorioak...), beti ere euren interesekoak direnak.  
Ikasgelan egoera komunikatibo ahalik eta errealean sortuko ditugu, ikasleek hizkuntza modu naturalean eta eraginkorrean jaso eta erabil dezaten. Alderdi gramatikalen, nahiz hiztegiaren errepikapena funtsezkoa izango da, ikasleek kontzeptu berriak barnera ditzaten.

## **IRAKASLEEN ETA IKASLEEN ROLAK**

### **IRAKASLEA**

Lehenengo eta behin, irakaslea ikasleen laguntzailea eta gidaria izango da, hau da, ikasleei eskuragarri duten informazio askotarikoa biltzen, hautatzen eta bereganatzen lagunduko die.

Bestetik, irakasleak ikasleek ebatzi ditzaketan erronkak planteatu eta horiek ebazteko

prozesuak abian jarriko ditu, ikaskuntza egoera irekiak abiaraziz, beti ere ikasleen interesak kontuan harturik.

Horrez gain, irakasleak arloarekiko jarrera baikorrak sustatuko ditu.

### IKASLEA

Ikasleek euren ikaste-prozesuaren ardura hartu beharko dute, hots, prozesua erregulatzen ikasi beharko dute, beren egitekoak planifikatuz eta hobetu behar dituzten alderdiak identifikatuz.

Ikasle bakoitzak bere esperientziak, ikaskuntza-estilo eta zaletasun propioak ditu.

### DENBORAREN ANTOLAKETA

Prozesua behar bezala bideratzeko, sekuentzia didaktiko bakoitzaren garapenari behar den denbora dedikatuko zaio. Baina horretarako garrantzitsua da baita ere ikasleek ikasteko duten denbora optimizatzea, prozedura zehatzak ezarriz, klase saioak puntualki hasiz, eta mozketak arau argien bidez saihestuz.

### JARDUERA MOTAK

Ikasgaiak berak dituen ezaugarriak kontutan hartuta, jarduera mota desberdinak garatuko dira: esperimentazioa, ikerketa, irteerak, diziplina arteko proiektuak (hiruhilabete bakoitzeko bat), behaketa zuzena...

Edukiei zentzua emateko, testuinguru hurbilean kokatutako eta eguneroko bizitzari lotutako interesguneak aipatuko dira unitate desberdinetan.

Zenbait lankidetzak egitura ere martxan jarriko dira (aurretik azaldutakoak). Horrez gain, ikasleek mintza praktikak egingo dituzte, ahozko hizkuntzaren erabilera sustatzeko eta hobetzeko.

### BALIABIDE DIDAKTIKOAK

IKTak: beharrezkoa denean, denon artean informazioa bilatzeko Interneta erabiliko dugu, open office paketeak eskaintzen dituen aplikazioak erabili ahal izango dira ikasleentzako gai ezberdinetan, bideoak jarriko dira eta web orrialde desberdinak (unitate bakoitzari dagozkion entzungaiak (entzumenak, abestiak, asmakizunak, etab), irakasleak prestatutako "aurkezpen digitalak", euskara lantzeko DVD-ak, etab.).

Baliabide bibliografikoak: testu liburua erabiliko da (Arin-Arian, Euskara eta Literatura 4-Santillana), irakasleok prestatutako fitxak, irakurgaiak, audioak.

**EBALUAZIO-TRESNAK** [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]

**INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN** [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].

**KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK** [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]

**CRITERIOS DE CALIFICACIÓN** [peso y valor de cada instrumento de evaluación].

<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lan koadernoen gainbegiraketa eta zuzenketa.</li> <li>• Ahozko frogen ebaluazioa (mintzamena).</li> <li>• Ikasleen eguneroko lanaren, ahaleginaren, parte-hartzearen, jarreraren etabarren ebaluazioa.</li> <li>• Idazlanen ebaluazioa.</li> <li>• Ulermen testuen ebaluazioa.</li> <li>• Lan indibidualen nahiz taldeko lanen ebaluazioa.</li> <li>• Etxerako lanak egin izanaren gainbegiraketa.</li> <li>• Unitate bakoitzean landu izaneko hiztegi eta gramatika aspektuen ikaskuntzaren kontrola galderen nahiz ariketen bitartez.</li> <li>• Idatzizko azterketak</li> </ul> <p>(Aspektu hauek guztiak irakasleek euren <b>nota koadernoetan</b> jasoko eta kontrolatuko dituzte).</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• GRAMATIKA: % 20</li> <li>• IDAZMENA: % 20</li> <li>• IRAKURMENA: % 25</li> <li>• ENTZUMENA: % 10</li> <li>• MINTZAMENA: % 15</li> <li>• EUSKERAREN ERABILERA: % 5</li> <li>• JARRERA ETA INTERESA: % 5</li> </ul>
<p><b>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK</b> [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupezio-sistema...].</p> <p><b>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN</b> [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<p>Kurtsoan zehar ikaslearen lana, jarrera eta ahalegina kontuan hartuko dira. Bakarkako lanak egiteko unean, beharrezkoa duten ikasleei, laguntza edo azalpen indibidualizatuak eskainiko zaizkie. Berrikusterako ariketak bultzatuko dira. Errefortzurako fitxak egingo dira, ikasle guztientzat nahiz zailtasunak dituzten ikasleentzat bereziki.</p>	

#### OHARRAK / OBSERVACIONES

Dagozkien ikasleentzat PRL baliabidea eskura egongo da.  
Zailtasun nabarmenak dituzten ikasleentzat errefortzuak bideratuko dira.

## Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: centro:	Nuestra Señora del Rosario	kodea: código:	014583
etapa:	Lehen Hezkuntza	zikloa/maila:	2. zikloa:

<i>etapa:</i>		<i>ciclo/nivel:</i>	4..maila
<b>arloa/irakasgaia:</b> <i>área / materia:</i>	Gizarte Zientziak		
<b>osatutako arloak/irakasgaiak</b> <i>áreas/materias integradas</i>			
<b>diziplina barruko oinarritzko kompetentzia elkartuak</b> <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia.</li> <li>2. Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.</li> <li>3. Zientziarako kompetentzia.</li> <li>4. Teknologiarako kompetentzia.</li> </ol>		
<b>irakasleak:</b> <i>profesorado:</i>	Jesús Torres / Gorka Kareaga	<b>ikasturtea:</b> <i>curso:</i>	2020/2021

Zeharkako kompetentziak / *Competencias transversales:*

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
5. Izaten ikasteko kompetentzia.

<b>helburuak</b> <i>objetivos</i>	<b>ebaluazio-irizpideak</b> <i>criterios de evaluación</i>
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ezaugarri bereizgarriak dituzten gizarte- eta kultura-taldeetako kide direla ohartzea eta balioestea, norberaren kultura-ezaugarri bereizgarriak eta beste talde batzuekiko desberdintasunak aintzat hartzea, eta gainerako identitate, kultura eta herriekiko errespetua izatea eta giza eskubideak errespetatzea ezinbestekoa dela ohartzea.</li> <li>2. Funtzionamendu demokratikoaren oinarritzko printzipioak aplikatu, lan komunarekiko ardura garatzen joan, eta norberaren eta besteen ekarpenak adostutako helburuaren arabera balioetsiko dira, komunitateari elkartasunez ekarpenak egiteko, inolako bazterkeriarik gabe (generoa, arraza, kultura, erlijioa...).</li> <li>3. Historiako etapa bakoitzaren ezaugarri nagusiak zein diren jakitea, etapa bakoitzeko gertaera garrantzitsuenak aztertzea eta ohartzea batzuk aldiberekoak direla eta beste batzuk</li> </ol>	<p><b>1. MULTZOA: Eduki komunak</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1.1 Arloarekin zerikusia duten eta ahozko eta/edo idatzizko testu errazak ulertu direla erakusten duten edukiak argi eta txukun azaltzen ditu ahoz.</li> <li>1.2 Testu geografiko, sozial eta historikoak bilatu, hautatu eta antolatzea dakarten hainbat iturritatik (zuzenekoak, liburuak, komunikabideak, Internet eta abar) ateratako datuak planifikatu, jaso eta hautatzen ditu, banaka eta taldean.</li> <li>1.3 Helburu jakin batekin jasotako informazioak antolatzen eta aztertzen ditu (laburpenak, inkestak, izaera geografiko eta historikokoak...), eta lortutako ondorioak metodori egokienarekin (grafiko baten bidez, ahoz, idatziz, IKTak erabiliz eta abar), erarik komenigarrienean (horma-irudia, laburpena, koadroa...), ahal bezain laster eta paper euskarrian edo euskarri digitalean jakinarazten ditu.</li> <li>1.4 Erantzukizuna, ahaleginerako gaitasuna, ikasteko jarraitutasuna eta ikasteko prozesuari berari buruzko hausnarketa garatzea.</li> </ol>

<p>elkarren segidakoak. Horren guztiaren helburua da historian zehar gertatu diren aldaketei buruzko iritzi pertsonal eta kritikoa eratztea eta ezagutza horiek une historikoak ongi ulertzeko erabiltzea.</p> <p>4. Gizakiak ingurune fisikoan eta gizarte-ingurunean dituen esku-hartzeen zenbait adibide ikusi eta kritikoki aztertzea, iraunkortasunaren ikuspegitik, eguneroko bizitzan ingurumena eta ondare historikoa eta kulturala babesteko, berreskuratzeko eta kontserbatzeko jarrera izateko.</p> <p>5. Ingurune fisiko, sozial eta kultureko gertaerak, kontzeptuak eta prozesuak zenbakizko kode bidez, kode grafiko bidez, kode kartografiko bidez eta errealtate geografikoak, ekonomikoak eta historikoak adierazten dituzten beste kode batzuen bidez adieraztea, zer gizarte-errealitatetan bizi garen ongi jakiteko.</p> <p>6. Inguruko testuinguru geografiko, sozial eta historikoko elementu garrantzitsuei lotutako zalantzak eta problemak zein diren jakin, planteatu eta ebaztea. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliko dira informazioa bilatzeko eta informazioa eta ezagutzak trukatzeko, eta hipotesiak egingo dira konponbide alternatiboak aztertzeko eta ikaskuntza-prozesuari berari buruzko hausnarketa egiteko.</p> <p>7. Gatazkak izan badirela jakitea, eta eztabaidetan eta mahai-inguruetan jarrera konstruktibo, kritiko eta tolerantz partez hartzea, eta ikustea elkarrizketa eta desadostasunak izatea ezinbesteko baliabideak direla gizakien eta gizartearen arazoei konponbidea emateko, elkarbizitza ona lortzeko eta intolerantziarik eta tratu txarrik egon ez dadin lortzeko.</p> <p>8. Nork bere nortasuna eratztea, eta norberaren ahalegina eta hobetzeko</p>	<p>1.5 Arloarekin zerikusia duten eta ahozko eta/edo idatzizko testuak ulertu direla erakusten duten edukiak argi eta txukun azaltzen ditu ahoz.</p> <p>1.6 Agindutako zereginak zorrotzasun eta ahalegin handiz egiten ditu, eta lanak txukun, argi eta garbi aurkezten ditu, paper-euskarrian eta/edo euskarri digitalean.</p> <p>1.7 Giza taldeak askotarikoak direla onartzea eta errespetatzea, lankidetzeta eta parte-hartze arduratsua lantzea, eta elkarrizketetan eta eztabaidetan, gainerako pertsonen ideiak eta ekarpenak desberdinak direnean, errespetuz eta tolerantziaz onartzea haiek, balio demokratikoak eta guztiok onartutako giza eskubideak oinarri hartuta.</p> <p>1.8 Bakarka eta taldean lanak egiteko estrategiak erabiltzen ditu, ikasgelan gatazkak era baketsuan konpontzeko trebetasunak agertzen ditu, taldeari bere oharrak eta ondorioak azaltzen dizkio ahoz zein idatziz, eta besteen ekarpenak onartzen ditu.</p> <p>1.9 Portaera arduratsua, konstruktiboa eta solidarioa jorratzen ditu, eta funtzionamendu demokratikoaren oinarriko printzipioak errespetatzen ditu.</p> <p>1.10 Giza taldeen arteko bizikidetzeta baketsuaren garrantzia balioesten du (ikasgelan, ikastetxean, familian), balio demokratikoak eta guztiok onartutako giza eskubideak oinarri hartuta.</p> <p>1.11 Berarekin bizi diren giza taldeekiko errespetu-jarrerak agertzen ditu (eskolan, auzoan, udalerrian eta abar).</p> <p>1.12 Gizarte-bizitzan eraginkortasunez eta modu konstruktiboan parte hartzea, eta lankidetzeta eta elkartasuna gatazkarik ez gertatzeko eta gatazkak konpontzeko bidea direla jakitea, balio demokratikoak errespetatuz.</p> <p>1.13 Eraginkortasunez eta modu konstruktiboan parte hartzen du familia- eta eskola-bizitzan, eta gatazkak konpontzeko estrategiak garatzen ditu.</p> <p>1.14 Gizartean eta hainbat inguruetan (eskolan, familian, auzoan eta abar) onartu ohi diren jokabide-kodeak eta usadioak</p>
--	--

<p>nahia sustatzen duten estrategiak bultzatzea, gizaki autonomo eta sozial moduan garatzeko, gainerakoekin elkarrekintzan, sormena, ekintzaile-sena eta lankidetzaz sustatuz.</p> <p>9. Unibertsoaren jatorria jakitea, eguzki-sistema irudikatzea, eta sistemaren osagaietako batzuk, higidura batzuk eta ondorio batzuk identifikatzea, urtaroen segida ulertzeko eta gure planeta zaintzeko konpromisoa hartzeko.</p> <p>10. Lur planetaren egitura, itsasoen eta kontinenteen banaketa, erliebea eta hidrografia identifikatu eta irudikatzea, eta elementu geografiko nagusiak bereiztea, jakiteko zer nolako elkarreragina eta ondorioak dituzten Euskal Herriko eta Espainiako kliman eta paisaietan.</p> <p>11. Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolaketa nolakoa den eta zer erakundek osatzen dituzten jakitea, baita Europar Batasunaren eginkizuna ere. Biztanleriaren ezaugarriak, migrazio-mugimenduak, eta kultura-, gizarte- eta hizkuntza-aniztasuna aztertuko dira, aintzat hartzeko eta desberdintasunak errespetatzeko.</p>	<p>egokienak eta erabilgarrienak era kritikoan identifikatzen eta erabiltzen ditu.</p> <p>1.15 Egoera eta gatazken simulazioak egiten ditu ikastetxean, soluzio-bide posibleak aztertzen ditu, eta ikasitakoa hurbileko ingurunean bizi dituen gatazka errealak era positiboan konpontzeko erabiltzen du.</p> <p>1.16 Sormenez eta ekintzaile-senaz jardutea, eta informazioa eta ideiak hobeto baliatzeko eta ondorio berritzaileak aurkezteko erabiltzea.</p> <p>1.17 Ikasgelako, familiako eta ikastetxeko zirkunstantzien aurrean aktibo izatera bultzatzen duten eta konfiantza pertsonala, zentzu kritikoa, ekimena, jakin-mina, interesa, sormena eta ekintzaile-sena agerian uzten duten jarrerak agertzen ditu.</p> <p>1.18 Planoak eta mapak egitea, interpretatzea eta erabiltzea, konbentziozko ikurrak eta eskala grafikoa kontuan izanda.</p> <p>1.19 Irudikapen espazialeatik (argazkia, planoak, mapa eta abar) informazioa ateratzen du, xehetasunen interpretaziotik abiatuta.</p> <p><b>2. MULTZOA: Gure mundua eta haren kontserbazioa</b></p> <p>2.1 Unibertsoa zer den eta nola sortu zen azaltzea, Lurra eta Ilargia eguzki-sisteman non kokatuta dauden adieraztea, eta haien ezaugarriak, higidura eta ondorioak azaltzea</p> <p>2.2 Unibertsoa zer den eta nola sortu zen deskribatzen du, haren osagai nagusiak azaltzen ditu, eta galaxia, izarra, planeta, satelitea, asteroidea eta kometa identifikatzen ditu.</p> <p>2.3 Lurraren translazio-higidura, biraketa-ardatza eta polo geografikoak definitzen eta irudikatzen ditu, eta urtarook haien guztien efektu konbinatuarekin lotzen ditu.</p> <p>2.4 Eguna eta gaua lurraren errotazioaren ondorio gisa eta denbora neurtzeko unitate gisa lotzen eta azaltzen ditu, eta hainbat iturri, baliabide eta euskarri informatiko erabiltzen ditu egindako lanaren berri emateko.</p> <p>2.5 Eguzki-sistemaren ezaugarriak, osagaiak eta higidurak deskribatzen ditu, eguzkia</p>
---	---

eguzki-sistemaren erdian identifikatzen du, eta planetak hurbiltasunaren arabera ezagutzen ditu.

**2.6 Lurraren irudikapen motak alderatzen, erkatzen, aztertzen eta azaltzen ditu: planoak, mapak, planisferioak, sateliteen irudiak, mapa topografikoak eta lur-globoak.**

2.7 Planoak eta mapak zuzen interpretatzea, eta eskalak, konbentziosko ikurrak eta hizkuntza ikonikoa eta sinbolikoa egoki interpretatzea eta erabiltzea.

2.8 Mapa motak identifikatzen eta sailkatzen ditu (planisferioak barne), mapa bateko eskala zer den zehazten du, eta mapan ager daitezkeen ikur konbentzionalak erabiltzen eta interpretatzen ditu.

2.9 Badaki ozeanoak, itsasoak, kontinenteak eta klima-eremu handiak munduko mapan, hainbat eskalatan eta lur-globoan kokatzen.

2.10 Paraleloak, meridioak eta koordenatu geografikoak identifikatzen eta erabiltzen ditu.

2.11 Fenomeno meteorologikoak atmosferan gertatzen direla jakitea, eta atmosfera babestearen garrantzia eta atmosfera ez zaintzearen ondorioak ezagutzea.

2.12 Fenomeno atmosferikoak identifikatzen ditu, haien izena esaten du, eta hodeiak eta prezipitazioak eragiten dituzten kausak deskribatzen ditu.

2.13 Atmosfera, baliabide naturalak eta energia zaintzearen garrantzia eta ez zaintzearen ondorioak arrazoitzen eta azaltzen ditu.

**2.14 Klima zer elementuk eragiten duten jakitea, klima eta eguraldia bereiztea, eta Euskal Herriko eta Espainiako eguraldiaren mapak interpretatzea.**

2.15 Klima definitzen du, klimaren elementuen izena esaten du, eta klima eragiten duten faktoreak identifikatzen ditu.

2.16 Eguraldiaren eta klimaren arteko desberdintasuna zein den azaltzen du.

2.17 Datu atmosferikoak biltzeko erabiltzen diren neurketa-aparatuak identifikatzen ditu, eta ematen duten informazioaren arabera sailkatzen ditu.

	<p>2.18 Euskal Herriko eta Espainiako mapa meteorologiko sinpleak interpretatzen ditu, eta haien elementu nagusiak bereizten ditu.</p> <p>2.19 Litosfera zer den jakitea, zenbait harri mota eta haien osaera ezagutzea, eta mineral batzuk eta haien propietateetako batzuk bereiztea.</p> <p>2.20 Harrien osaera behatu, identifikatu eta azaltzen du, eta harri mota batzuen izena esaten du.</p> <p>2.21 Harrien eta mineralen arteko desberdintasunak identifikatzen eta azaltzen ditu, haien erabilerak eta erabilgarritasunak deskribatzen ditu, eta mineral batzuk propietateen arabera sailkatzen ditu.</p> <p>2.22 Munduko eremu klimatikoak eta Euskal Herriko eta Espainiako klimak ezagutzea, eta haien oinarritzko ezaugarri batzuk adieraztea eta aztertzea.</p> <p>2.23 Eremu klimatiko bat zer den azaltzen du, planetako hiru eremu klimatikoen izena esaten du, eta haien ezaugarri nagusiak deskribatzen ditu.</p> <p>2.24 Hidrosfera zer den azaltzea, ur-masak eta ur-ibilbideak identifikatzea eta haien izena jakitea, azaleko urak eta lurpeko urak bereiztea, Euskal Herriko, Espainiako eta Europako arro eta isurialde hidrografikoak ezagutzea, uraren zikloa deskribatzea, eta arduraz kontsumitu behar dela jakitea.</p> <p>2.25 Uraren zikloaren faseak ordenan deskribatzen ditu.</p> <p>2.26 Ibai bateko tartekak eta bakoitzaren ezaugarriak identifikatzen eta adierazten ditu.</p> <p><b>2.27 Aldaketa klimatikoen arrazoiak eta ondorioak identifikatu.</b></p> <p><b>2.28 Euskal Herriko eta Espainiako erliebe-unitate nagusiak eta isurialde hidrografikoak non dauden adierazten eta azaltzen du mapa batean.</b></p> <p>2.29 Espainiako itsasoak, ozeanoak, ibai handiak, haien ibaiadarrak eta Euskal Herriko ibaiak non dauden adierazten du mapa batean.</p> <p>2.30 Europako erliebe-unitate nagusiak, Europako klimak eta sare hidrografikoa adieraztea, eta mapa batean kokatzea.</p>
--	--



2.31 Europako erliebe-unitate nagusiak, kostaldeko erliebea, isurialde hidrografikoak eta klimak kokatzen ditu mapa batean, eta ezaugarriak azaltzen ditu.

2.32 Europako klimak sailkatzen ditu, eta Europako klimei lotutako landaredia deskribatzen du.

2.33 Europako eta Espainiako ibaien ezaugarriak deskribatzen ditu, eta haien arteko alderaketa egiten du.

2.34 Gizakiak natura-ingurunean duen portaeraren eragina azaltzea, baliabide naturalak irauteko moduan erabili behar direla adieraztea, eta gizarteek lurralde-garapen jasangarria bultzatzeko ezinbestekoan bete behar dituzten neurri batzuk proposatzea eta haien eragin onuragarria azaltzea.

2.35 Baliabide naturalen erabilera jasangarria eta kontsumo ez-jasangarria bereizten ditu, eta gizakiaren ekintzak ingurune naturalaren kontserbazioan eta eraldaketan duen eragina deskribatzen eta aztertzen du.

2.36 Deforestazioa, gehiegizko ustiapena eta kutsadura bereizten ditu, ingurune naturala narriatzen duten giza ekintza gisa identifikatzen ditu, eta ingurune naturala kontserbatu eta babesteko eta hondamendi naturalak prebenitu eta txikiagotzeko neurriak proposatzen eta hartzen ditu.

2.37 Euskal Herriko espazio babestu nagusiak eta Espainiako parke nazionalak kokatzen ditu mapa batean.

### **3. MULTZOA: Gizartean bizitza**

3.1 Konstituzioak Estatu espainiarraren funtzionamendurako duen garrantzia azaltzea, eta Konstituzioan zer eskubide, betebeharrak eta askatasun jasotzen diren adieraztea.

**3.2 Konstituzioan ezarritako printzipio demokratikorik garrantzitsuenak identifikatzen, errespetatzen eta balioesten ditu, eta Konstituzioak Estatu espainolaren funtzionamendurako duen garrantzia azaltzen du eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua ezagutzen du.**

	<p>3.3 Estatu espainiarreko lurralde-antolamendua eta erakunde politikoak deskribatzea eta udaleko, probintziako eta autonomia-erkidegoko administrazioak eta haien administrazio-eskumenak bereiztea.</p> <p><b>3.4 Espainiako eta EAeko biztanleen ezaugarriak ezagutzen ditu.</b></p> <p><b>3.5 Espainiako eta EAeko sektore ekonomikoak aipatzen ditu.</b></p> <p>3.6 Espainiako lurralde-antolamendua azaltzen du, oinarrizko gobernu-egituren izena esaten du, eta Espainia osatzen duten erkidegoak, hiri autonomoak, probintziak eta lurralde historikoak kokatzen ditu mapa politikoetan.</p> <p>3.7 Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estatu espainiarreko erakunde nagusiak identifikatzen ditu eta haien funtzioak eta antolamendua deskribatzen du.</p> <p>3.8 Administrazioen arteko erlazio hierarkikoa deskribatzen du: udalerrria, lurralde historikoak, Euskal Autonomia Erkidegoa, Estatu...</p> <p>3.9 Europar Batasunak zer egitura eta helburu dituen jakitea, eta EBko kide izateak dakartzan abantaila batzuk adieraztea.</p> <p>3.10 Europar Batasuna zer den eta haren helburu politikoak eta ekonomikoak zein diren azaltzen du, eta herrialde kideak eta bertako hiriburuak kokatzen ditu mapa batean.</p> <p>3.11 Europar Batasuneko erakunde nagusiak eta gobernu-organoak identifikatzen ditu, sinboloak ezagutzen ditu, eta merkatu bakarra eta eurogunea zertan dautzan azaltzen du.</p> <p>3.12 Biztanleria-piramide bat eta biztanleria aztertzeke erabilitako beste grafiko batzuk interpretatzen eta lantzen ditu.</p> <p>3.13 Euskal Herriko, Espainiako eta Europako biztanleriaren ezaugarri nagusiak (biztanleria aktiboa, ez-aktiboa, biztanleria-dentsitatea...) deskribatzea eta alderatzea</p> <p>3.14 Euskal Herriko eta Espainiako biztanlegunerik handienak eta biztanleria-dentsitaterik handieneko eremuak kokatzen ditu mapa batean.</p>
--	---

	<p>3.15 Euskal Herriko, Espainiako eta Europako biztanleriek sektore ekonomiko bakoitzean duten banaketa aztertzea eta alderatzea, eta haien arteko antzekotasunak eta aldeak azaltzea.</p> <p>3.16 Euskal Herriko, Espainiako eta Europako biztanleriak sektore ekonomikoen arabera duen banaketari buruzko grafiko motak aztertzen eta interpretatzen ditu.</p> <p>3.17 Euskal Herriko, Espainiako eta Europako sektore ekonomiko bakoitzean biztanleria nola banatuta dagoen eta sexuen arabera lan-baldintzak nola bereizten diren azaltzen du.</p> <p>3.18 Landa-exodoa, Europarako emigrazioa eta Euskal Herrira eta Estatura iritsi diren etorkinen etorrera azaltzen ditu.</p> <p>3.19 Biztanleriaren egungo arazo nagusiak identifikatzen eta deskribatzen ditu: gainpopulazioa, zahartzea, immigrazioa eta abar.</p> <p>3.20 Lehengaiak eta produktu landuak identifikatzen eta definitzen ditu, eta lortzeko egiten diren jarduerekin lotzen ditu.</p> <p>3.21 Produktu bat lortzeko prozesua saltzen den arte deskribatzen du ordenan, eta produktuari dagokion sektorea identifikatzen du.</p> <p>3.22 Sektore ekonomikoen jarduerak ezagutzea, sektoreen ezaugarriak deskribatzea, eta Euskal Herriko, Espainiako eta Europako jarduera ekonomiko nagusiak ezagutzea.</p> <p>3.23 Euskal Herriko, Espainiako eta Europako lehen, bigarren eta hirugarren sektoreen jarduerarik garrantzitsuenak azaltzen ditu.</p> <p>3.24 Europako industria nagusiak eta fabrikatzen dituzten produktuak identifikatzen ditu, eta zein herrialdetan kokatuta dauden zehazten du.</p> <p><b>3.25 Diruaren balioa eta erabilerak ezagutzea, aurreztu eta arduraz kontsumitu behar dela jakitea, eta nahitaez egin beharreko gastu finkoak eta premiazko ez direnak bereiztea.</b></p> <p>3.26 Inguruko lantegien martxan pertsona ekintzaileek duten eragina balioesten du.</p>
--	---

3.27 Trafiko-seinale batzuen esanahia ezagutzen du, badaki zein garrantzitsua den horiek errespetatzea, eta oinezko nahiz garraiobideen erabiltzaile gisa erabiltzen ditu (gerrikoa lotzea, gidaria ez molestatzea, eta beste batzuk).

#### **4. MULTZOA: Denboraren arrastoa**

4.1 Aro historikoen ezaugarri nagusiak eta historiaren bidea aldatzea ekarri duten zenbait gertaera azaltzea, eta iturri historikoak erabiltzea eduki historikoak duten laburpenak eta txostenak egiteko, ondorioak ateratzeko eta bestelako lanak egiteko.

4.2 "Historiaurre" eta "historia" kontzeptuak definitzen eta erlazionatzen ditu, historiako aroaren ideia ezagutzen du, historiako aroei data jartzen die haien hasiera eta amaiera eragin zuten gertaerei lotuta, eta aro bakoitzari lotutako iturri bereizgarri batzuk aipatzen ditu.

4.3 Idazketak, nekazaritzak eta abeltzaintzak Historian gizarteak sakonean aldatu zituzten aurkikuntza gisa duten garrantzia azaltzen eta balioesten du.

4.4 Badaki mendea denbora historikoa neurtzeko unitate bat dela, eta gertaera batzuk K.a. eta K.o. kokatzen ditu.

**4.5 Denboran eta espazioan identifikatzea eta kokatzea Euskal Herriko eta Espainiako historiako prozesu eta gertaera historiko nagusiak, haien bilakaeraren ikuspegi orokorra izateko.**

4.6 Aztertutako garai historikoetan Euskal Herriak eta Espainiak zuten bizimoduari eta gizarte-antolamenduari lotutako alderdiak aztertzen, alderatzen eta azaltzen ditu.

4.7 Jakin-mina izatea iraganean gizakia nola bizi zen jakiteko, Euskal Herriko eta Espainiako aztarna arkeologikoen historia ezagutu eta aztertzeko duten garrantzia aintzat hartzea, eta horiek guztiak zaindu beharreko eta pertsona orori helarazi beharreko kultura-ondareak direnaren jakitun izatea.

4.8 Euskal Herriko ondare naturala, historikoa, kulturala eta artistikoa identifikatzen, balioesten eta errespetatzen du, eta ondare hori gorde eta hobetzeak dakartzan erantzukizunak bere gain hartzen ditu.

	<p>4.9 Aztarna historikoak errespetatzen ditu, besteei helarazi beharreko ondare gisa balioesten ditu, eta badaki ondare arkeologiko monumentalak nolako balioa duen iraganaren berri izateko.</p> <p>4.10 Euskal Herriko eta Espainiako gizartearen eguneroko bizitzako elementuek (etxebizitzak, arropak, familia-antolamenduak, gizarte-antolamenduak, lan motek...) historian izan duten bilakaeraren adibideak ematen ditu: gizarte primitiboak, Antzinaro klasikoa, Erdi Aroa, Aro Modernoa eta Aro Garaikidea.</p> <p>4.11 Euskal Herriko eta Espainiako iraganeko eta egungo ohiturak, tradizioak eta kultura-adierazpenak ezagutzen eta errespetatzen ditu, eta haiekiko interesa agertzen du.</p> <p>4.12 Balio historiko, artistiko edo kulturala duen museo edo eraikin bat bisitatzen denean agertu beharreko portaera errespetatzen eta bere gain hartzen du.</p>
--	---

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

**SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS** [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

<p>Gaur egungo egoera dela eta, hainbat eduki eta baliabide metodologiko egokituak izan dira.</p> <p>lazko ikasturteko hirugarren hiruhilabeteen landu ez ziren, eta oinarrizkoak ziren zenbait eduki gehituak izan dira, eta irailean hauen birpasaketa, berreskurapen eta errefortzu jarduerak burutu dira.</p> <p>Edukiak unitate didaktikoka sekuentziatu egingo dira, honako modu honetara:</p> <p><b>1.EBALUAZIOA</b></p> <p><b>1. Unitatea. Airea eta ura bizitzarako.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Airearen kutsadura.</li> <li>● Eguzki sistema. Lurraren eta Ilargiaren higidurak eta horien ondorioak</li> <li>● Atmosfera, bizian eusteko elementu garrantzitsua</li> <li>● Eguraldia eta klima: elementuak eta faktoreak</li> <li>● Eguraldiaren iragarpena</li> <li>● <b>Eguraldi mapak</b></li> </ul>	
--	--

- **Espainiako eta Euskadiko klimak**
- **Hidrosfera: itsas urak eta ur kontinentalak**
- **Euskal Herriko eta Espainiako ibaiak**
- Gailu meteorologikoak, erregistroa eta grafikoak
- Kutsadura atmosferikoa
- Aldaketa klimatikoa. Arrazoiak eta ondorioak.

## **2. unitatea: Zapaltzen duzun lurra.**

- Geosfera eta haren zatiak. Litosfera.
- Erliebearen eraketa: barneko eta kanpoko agente geologikoak
- Erlieba: kostaldeko eta barnealdeko paisaiak
- Europako paisaiak
- Gizakiaren esku hartzea eta ingurune naturala
- Espazioan orientatzea: puntu kardinalak, ingurunean, mapa batean eta planoetan. Iparorratza
- Garapen iraunkorra

## **3. unitatea: Bizikidetz**

- **Espainiaren eta Euskadiren antolaketa politikoa.**
- **Espainiaren lurralde antolaketa**
- Udala: osaera, funtzioak eta udal zerbitzuak
- Euskadiko kultura eta hizkuntza adierazpenak. Espainiako hizkuntza ofizialak eta tradizioak
- Europar Batasuna. Osaera eta erakundeak. Xedea, eta kide izateak dakartzan onurak.
- Hauteskunde demokratikoak
- Berdintasunaren balioa demokrazian

## **4. unitatea: Era askotako pertsonak**

- **Jarduera ekonomikoak ekoizpen sektoreetan**
- Garraioa eta turismoa
- Enpresak eta publizitatea
- Biztanleriari buruzko datuen analisia
- **Euskal Herriko eta Espainiako biztanleria: banaketa**
- Immigrazioa eta emigrazioa: lan arazoak
- Bide hezkuntza

## **5. unitatea: Zer ginen eta zer gara**

<ul style="list-style-type: none"> <li>● Familiaren iragan eta hurbilekoa aztertzea: informazio iturriak</li> <li>● Denbora historikoaren neurketa: historiaren aroak. Denbora lerroak</li> <li>● <b>Euskal Herriko historia</b></li> <li>● Ondarearen ezaguera eta balioespena, gure iragana eta gure kultura ezagutzeko</li> <li>● Ondarea zaharberritzea, birgaitzea eta kontserbatzea</li> <li>● Herentzia kultura</li> <li>● Kulturen arteko harremana eta elkarreragina</li> </ul> <p><b>6. unitatea: Gure arbasoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● <b>Historiaurrea: Paleolitoa, Neolitoa eta Metal Aroa</b></li> <li>● <b>Antzinaroa: erromatarren aurreko gizakien jardura ekonomikoak.</b></li> <li>● <b>Antzinaroa: Erromatarrak</b></li> <li>● <b>Erromatarrek utzitako ondarea</b></li> <li>● Antzinaroko idazkera</li> <li>● Hezkuntzaren historia</li> <li>● Beste zibilizazio batzuk</li> </ul>	
--	--

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jardura motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

**METODOLOGÍA** [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

### **PRINTZIPIO PEDAGOGIKO NAGUSIAK**

- Metodologia aktiboa eta ikasleen parte hartzea sustatuko duena erabiliko da. Ikasleen aurretiazko ezagupenak eta esperientziak hartzen dira abiapuntutzat, ikasleek euren ikaskuntza prozesu propioa eraiki dezaten, honetan aktiboki parte hartuz eta protagonistak izanik. Funtsezkotzat jotzen dugu ikasleen interes, eskaera, behar eta espektatibetatik abiatzea. Horregatik, ikaslearen errealitatetik hurbil dauden jarduerak bultzatuko dira.
- **Programazio ziklikoa**, etaparen helburu nagusiekin guztiz integratutakoa; eta **edukien hautaketa zorrotza**, aurreko ikasturteetan ikasitakoa sendotuko duena eta gai berrietarako ateak zabalduko dituena.
- **Ikasleen aniztasunari arreta:**  
Gure heziketaren oinarritzko printzipioetan, besteak beste, ikasle bakoitzaren erritmoa, motibazioa eta interesak kontuan hartzen dira.
- **Balioen heziketarekiko sentsibiltatea:**  
Jokabide eredu autonomoetarako sarbide mailakatuak eta ikasleen sozializazio gero eta handiagoak beharrezkoa egiten dute balioen hezkuntza.
- **Hezkuntza-prozesuaren balioestea:**  
Ebaluazioa modu holistikoa ikusten da, hots, hezkuntza-prozesuaren alderdi guztiak aztertzen ditu eta atzeraelikadura ahalbidetzen du, jardura bere osotasunean berregituratzeko aukera ematen duen informazio zehatzaren ekarpena.

- Ikasgelan egoera komunikatibo ahalik eta errealean sortuko ditugu, ikasleek hizkuntza modu naturalean eta eraginkorrean jaso eta erabil dezaten. Alderdi gramatikalen, nahiz hiztegiaren errepikapena funtsezkoa izango da, ikasleek kontzeptu berriak barnera ditzaten.
- **Ahozko eta idatzizko hizkuntzaren** erabilera egokia biltzatuko da. Ahozko aurkezpenak egingo dituzte maiz, zeinetan ikasitako teoria modu praktikoan aplikatu ez ezik, euren hizkuntza gaitasuna garatuko duten ere. Garrantzia berezia emango zaio ahozko hizkuntzan daukaten abileziaren garapenari. Mahai-inguruak egingo ditugu noizean behin, ikasleek landutako gai zehatz baten gainean daukaten ikuspuntua edo iritzia defendatu eta azaldu behar izango duten haien ikaskideen aurrean.

## **IRAKASLEEN ETA IKASLEEN ROLAK**

### **IRAKASLEA**

Lehenengo eta behin, irakaslea ikasleen laguntzailea eta gidaria izango da, hau da, ikasleei eskuragarri duten informazio askotarikoa biltzen, hautatzen eta bereganatzen lagunduko die.

Bestetik, irakasleak ikasleek ebatzi ditzaketan erronkak planteatu eta horiek ebazteko prozesuak abian jarriko ditu, ikaskuntza egoera irekiak abiaraziz, beti ere ikasleen interesak kontuan harturik.

Horrez gain, irakasleak arloarekiko jarrera baikorrak sustatuko ditu.

### **IKASLEA**

Ikasleek euren ikaste-prozesuaren ardura hartu beharko dute, hots, prozesua erregulatzen ikasi beharko dute, beren egitekoak planifikatuz eta hobetu behar dituzten alderdiak identifikatuz.

Ikasle bakoitzak bere esperientziak, ikaskuntza-estilo eta zaletasun propioak ditu.

## **ESPAZIOEN ANTOLAKETA**

Espazioen banaketa ondoko helburuen arabera egiten da

-Autonomia maila nahikoa sustatzea eskola jardueran.

-Ikasgelaz besteko espazioak aprobetxatzeko aukera ematea.

### **IKASGELAKO ESPAZIOA**

Ikasgelako espazioari dagokionez, ikasgela taldeari eta emango den arloari egokitu behar zaie.

Erabaki horrekin batera, laneko funtsezko espazioa osatzen duten materialen aukeraketa baita ikasketa testuinguru.

Gainera, mahaiaren kokapenaren auzia, irakasleak ikasgelan hartuko duen lekua eta ikasgelaren harreman kinesikoa ere kontuan hartuko dira. Erabaki horiek parte-hartze erritmo ezberdina duten espazioen existentziari erantzuten diete, akzio gunea eta gunea marjinala (aurrealdea eta atzealdea eta alboak, hurrenez hurren), eta horiek pizteko beharrari.

Laburtuz, ondokoak dira ikasgela eremuan kontuan hartu beharreko zenbait alderdi:

- Ikasgela-taldea / ikasgela-arloa.
- Ikasgelakoak diren materialak.
- Ikasgelaren antolaketa.
- Irakasle-ikasle espazio harremana.
- Baldintza orokorrak (argiztapena, egoera, etab.).

### **ERABILERA ZEHATZEKO ESPAZIOA:**

Espazioen banaketari dagokionez, zentroan berariazko erabilera duten guneei egiten diegu erreferentzia, azken finean ikasle guztiak erabiltzen dituzten lekuak, alegia.

Ondokoak dira horietako espazio batzuk:



- Ikasgela.
- Ikus-entzunezko gela.
- Erabilera anitzetarako gela.

### **DENBORAREN ANTOLAKETA**

Prozesua behar bezala bideratzeko, sekuentzia didaktiko bakoitzaren garapenari behar den denbora dedikatuko zaio. Baina horretarako garrantzitsua da baita ere ikasleek ikasteko duten denbora optimizatzea, prozedura zehatzak ezarriz, klase saioak puntualki hasiz, eta mozketak arau argien bidez saihestuz.

### **JARDUERA MOTAK**

Ikasgaiak berak dituen ezaugarriak kontutan hartuta, jarduera mota desberdinak garatuko dira: esperimantazioa, ikerketa, diziplinarteko proiektuak (hiruhilabete bakoitzeko bat), behaketa zuzena...

Edukiei zentzua emateko, testuinguru hurbilean kokatutako eta eguneroko bizitzari lotutako interesguneak aipatuko dira unitate desberdinetan.

Zenbait lankidetzaz gaiturak ere martxan jarriko dira (aurretik azaldutakoak).

### **BALIABIDE DIDAKTIKOAK**

- Baliabide bibliografikoak: testu liburua erabiliko da (Jakintzaren zaindariak, Gizarte Zientziak 4-Ibaizabal), irakasleok prestatutako fitxak, irakurgaiak ...
- Baliabide **digitalen** erabilera sustatuko da: informazio bilaketa, ikasleen ikerkuntzak, Power Point-ak, bideoak, irakasleak prestatutako materialak, Kahoot programak, etab.
- **Irudien behaketak**, grafikoaren interpretazioak, mapen interpretazioak, datu bilketak, etab. gauzatuko dira.
- Informazioa adierazteko **eskemak** eta **mapa kontzeptualak** erabiltzen hasiko dira ikasleak, baita gaiarekin erlazionatutako marrazkiak ere.

<p><b>EBALUAZIO-TRESNAK</b> [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p><b>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN</b> [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p><b>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK</b> [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p><b>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN</b> [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lan koadernoan gainbegiraketa eta zuzenketa.</li> <li>• Ikasleen eguneroko lanaren, ahaleginaren, parte-hartzearen, jarreraren etabarren ebaluazioa.</li> <li>• Lan indibidualen ebaluazioa.</li> <li>• Aurkezpenen nahiz proiektuen ebaluazioa.</li> <li>• Etxerako lanak egin izanaren gainbegiraketa.</li> <li>• Unitate bakoitzean landu izaneko edukien ikaskuntzaren kontrola galderen nahiz ariketen bitartez.</li> <li>• (Aspektu hauek guztiak irakasleek euren <b>nota koadernoetan</b> jasoko eta kontrolatuko dituzte).</li> <li>• Idatzizko azterketak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Idatzizko azterketak: %70</li> <li>• Klasean nahiz etxean gauzatutako lan ezberdinak (eguneroko ariketak, lanak, aurkezpenak, esperimenduak, etab):%20</li> <li>• Jarrera: %10</li> </ul>
<p><b>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK</b> [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekuerazio-sistema...].</p> <p><b>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN</b> [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<p>Kurtsoan zehar ikaslearen lana, jarrera eta ahalegina kontuan hartuko dira. Bakarkako lanak egiteko unean, beharrezkoa duten ikasleei, laguntza edo azalpen indibidualizatuak eskainiko zaizkie. Berrikusterako ariketak bultzatuko dira. Errefortzurako fitxak egingo dira, ikasle guztientzat nahiz zailtasunak dituzten ikasleentzat bereziki. Hiruhilekoaren amaieran ahozko zein idatzizko probak egingo zaizkie ikasleei berreskurapen gisa.</p>	

ANEXO I

ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA EGITEKO TXANTILIOIA

ANEXO I

PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA ANUAL DE ÁREA O MATERIA

Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa  
Programación didáctica anual/de curso

<p>ikastetxea: centro:</p>	<p>Nuestra Señora del Rosario</p>	<p>kodea: código:</p>	<p>014583</p>
<p>etapa: etapa:</p>	<p>Lehen Hezkuntza</p>	<p>zikloa/maila: ciclo/nivel:</p>	<p>2. zikloa 4. maila</p>

<b>arloan/irakasgaia:</b> <i>área / materia:</i>	Erligio Katolikoa		
<b>osatutako arloak/irakasgaiak</b> <i>áreas/materias integradas</i>	Gizarte Zientzia Arte Hezkuntza Euskera eta Literatura		
<b>diziplina barruko oinarriko kompetentzia elkartuak</b> <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	Hizkuntza Gaitasuna Ikasten ikasteko gaitasuna Gaitasun sozial eta zibikoa Gaitasun digitala		
<b>irakasleak:</b> <i>profesorado:</i>	Jesus Torres, Virginia Alvarez	<b>ikasturtea:</b> <i>curso:</i>	2020-2021

Zeharkako kompetentziak / *Competencias transversales:*

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
5. Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.
6. Izaten ikasteko kompetentzia.
7. Teknologiarako kompetentzia
8. Arterako kompetentzia.

<b>helburuak</b> <i>objetivos</i>	<b>ebaluazio-irizpideak</b> <i>criterios de evaluación</i>
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Bibliako pasarteak irakurtzea eta haietatik irakaspenak ateratzea.</li> <li>2. Zeruetako Erreinua zer den ulertzea.</li> <li>3. Jainkoaren Erreinua eratzen duten balioak aitortzea.</li> <li>4. <i>Magnificata</i> eta Zoriontasunak ezagutzea eta helarazten diguten mezua ulertzea.</li> <li>5. Jainkoaren barkamenaren ezaugarriak aintzat hartzea.</li> <li>6. «Mundua hankaz gora jartzea»-k zer esan nahi duen ulertzea.</li> <li>7. Jesusen bizitzan mundu berri bat agerrarazten duten istorioak aurkitzea.</li> <li>8. Gainditze-istorioak ezagutzea eta aztertzea.</li> <li>9. Zailtasunak gainditzen eta haiei aurre egiten laguntzen duten moduak eta pertsonak aitortzea.</li> <li>10. Bizi garen munduko edertasunak identifikatzea.</li> <li>11. Mundua aldatzeko ideiak proposatzea.</li> <li>12. Ametsak hitzez adieraztea eta nola lor daitezkeen azaltzea.</li> <li>13. Mezua, kartelak eta esloganak diseinatzea.</li> <li>14. Pertsonaia ospetsuei galderak eta</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Bekatuaren jatorria identifikatzea Bibliako zenbait kontakizunetan. <ol style="list-style-type: none"> <li>1.1 Ondo kokatzen ditu kontakizunean Jainkoarekiko adiskidetasunaren kontrako arbuioa eta Haren eginkizunean laguntzeko prestasun eza adierazten duten esaldiak, eta ondo aplikatzen ditu esaldi horiek gaur egungo egoeretan.</li> <li>1.2 Ondo gogoratzen eta kontaktzen ditu Jainkoarekiko adiskidetasuna arbuiaua izan dela erakusten duten egungo gertaerak.</li> <li>1.3 Jainkoaren kontrako arbuioa erakusten duten jarrerak eta egoerak identifikatzen ditu.</li> </ol> </li> <li>2. Jainkoaren barkamenaren ezaugarriak ezagutzea. <ol style="list-style-type: none"> <li><b>2.1 Jainkoaren barkamenaren ezaugarriak antzematen ditu Bibliako zenbait testu eta kontakizunetan, baita haiek banan banaka aipatzen ere.</b></li> </ol> </li> </ol>

<p>elkarrizketak egitea.</p> <p>15. Artelanei, film laburrei eta luzeei behatzea, deskribatzea eta interpretatzea.</p> <p>16. Albiste eta titulu positiboak irakurtzea, aztertzea eta idaztea.</p> <p>17. Ingurukoei albiste positiboak kontatzea.</p> <p>18. Hainbat publizitate-formatu eta sare sozial erabiltzea.</p> <p>19. Mundu desberdin baten aldeko publizitate-kanpaina bat prestatzea.</p> <p>20. Publizitate-kanpaina bat behar diren zereginak antolatzea eta gauzatzea.</p> <p>21. Otorduaz eta ospakizunaz diharduten Bibliako testuak irakurtzea eta zinterpretatzea.</p> <p>22. Eukaristiaren sakramentua eta haren ospakizuneko uneak ezagutzea.</p> <p>23. Pazkoaren eta Pazko eguneko bazkariaren esanahia ulertzea.</p> <p>24. Hainbat eremutako eta kulturatako ospakizunak arakatzea eta aztertzea.</p> <p>25. Heriotza pertsonen bizitzaren ospakizun gisa hautematea.</p> <p>26. Bazkariaren eta ospakizunaren garrantzia balioestea eta haien arteko lotura egitea.</p> <p>27. Festa bat edo ospakizun bateko uneak xehetasunez deskribatzeko gauza izatea.</p> <p>28. Artelanei behatzea eta horiek konparatzea eta interpretatzea.</p> <p>29. Ideiak, zaletasunak, bertuteak eta sentimenduak adieraztea eta norberaren edo besteren objektuak deskribatzea.</p> <p>30. Giza bizitzarako ezinbestekoak diren gauzei antzematea</p> <p>31. Jesusen bizitzarekin loturiko alderdiak identifikatzea eta azaltzea.</p> <p>32. Elkarre, ekimen eta lekukotasun solidarioak aurkitzea.</p> <p>33. Gogoeta egitea elkarre solidarioek aurrera daramaten lanaren inguruan</p> <p>34. Norbera laguntza beharrea dauden pertsonen tokian jartzea.</p>	<p>3. Davidek Jainkoaren mandatuaz abusatzen dueneko uneak memorizatzea.</p> <p>3.1 Davidek erregeak Jainkoaren borondatearen aurka hartutako jokabideak identifikatzen eta deskribatzen ditu.</p> <p>4. Davidek erredentzio beharra zergatik sentitzen duen aurkitzea eta balioestea.</p> <p><b>4.1 Barkamena jasotzeko beharra sentitu dueneko egoera pertsonalekin konparatzen du Daviden jarrera.</b></p> <p>4.2 Jainkoa Davidi barkamena ematen deskribatzen duten pasarteak ezagutzen ditu eta modu artistikoan adierazten ditu. Beste lagunen iritziekiko errespetua erakusten du.</p> <p>5. Biblian Jainkoak Mesiasen etorrera agintzen duela erakusten duten istorioak ikastea eta gogoratzea.</p> <p>5.1 Biblian Jainkoa Mesiasen etorreraren promesa egiten deskribatzen duten eszenak berritzen eta memorizatzen ditu.</p> <p>6. Jesusi gaixoen eta behartsuenen alde egindako ekimena aitortzea.</p> <p><b>6.1 Ebanjeliko testuetan Jesusek gaixo eta behartsuenen alde hartutako jarrera erakusten duten ezaugarriak bilatzen, azpimarratzen eta komentatzen ditu.</b></p> <p>7. Jesusek behartsuenen eta gaixoen alde egindako ekimenak ezagutzea.</p> <p>7.1 Testu ebanjelikoetan Jesusek behartsuenei eta gaixoei erakusten dien estimuaren eta begikotasunaren ezaugarriak bilatzen, azpimarratzen eta komentatzen ditu.</p> <p><b>7.2 Jesusek behartsuen eta gaixoen alde egindako ekimenak ezagutzen eta aztertzen ditu bere inguruan.</b></p> <p>8. Eukaristiaren ospakizuneko keinuak eta uneak bereiztea.</p> <p><b>8.1 Eukaristiaren ospakizuneko sinboloak, esanahiak eta uneak uztartzen ditu.</b></p>
--	--

	<p>9. Otorduaren eta ospakizunaren sinbolismoa ezagutzea eta aztertzea Bibliako kontakizunetan.</p> <p>9.1 Azken Afariaren eta Kristoren piztueraren, Eukaristiaren edo pazkoaren artean dagoen erlazioa ezagutzen du.</p> <p>9.2 Jesusek gauzak partekatzearen eta ospatzearen alde egindako hitzak eta keinuak azaltzen ditu.</p>
--	---

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektua, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

**SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS** [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

*Gaur egongo egoera dela eta, hainbat eduki eta baliabide metodologiko egokituak izan dira.*

*Iazko ikasturteko hirugarren hiruhilabeteen landu ez ziren, eta oinarrizkoak ziren zenbait eduki gehituak izan dira, eta irailean hauen birpasaketa, berreskurapen eta errefortzu jarduerak burutu dira.*

### **LEHEN PROIEKTUA: "Mundua hankaz gora"**

Lehen proiektua iraila eta urtarrilaren artean gauzatuko da.

Proiektu honek Ebanjelioaren indar iraultzailea esploratzen du, Ebanjelioa Berri On bihurtzen duen hori. Horregatik deitu diogu Mundua hankaz gora.

#### **EDUKIAK**

-Jatorrizko bekatuari buruzko kontakizuna: Jainkoa ordezkatu nahi duen gizakia.

**-Jainkoa barkamena emateko prest beti.**

-Jainkoaren mandatuarekiko fedegabetasuna Daviden historian.

**-Davidek erredentzio beharra sentitzen du bere bizitzan.**

-Jainko leialak Mesias baten etorrera agintzen du.

**-Jesusek ahulenganako eta behartsuenenganako adiskidetasuna eta begikotasuna erakusten du.**

#### **ATALAK**

- **Goazen!** Proiektuaren helburua publizitate-kanpaina bat diseinatzea da, «Mundua hankaz gora»
- **Bidelagunak.** Rolak ezartzeko unea da, taldeak hobeto funtziona dezan laguntzeko.
- **Irakurtzen gaituen Hitza.** Hiru testu baliatuko ditugu atal hau aurrera eraman bitartean.
- **Gure fedea ulertzen dugu.** Ebanjelioaren proposamena mundu honetako ordena goitik behera iraultzea da
- **Kulturak Jainkoaz hitz egiten digu** Mesiasen eginiko promesean jarriko dugu arreta Magnificataren bitartez.
- **Eraberrituz.** Gizakiak —muga estuak eta zailtasun larriak gaindituz— bere bizitza aldatzeko, onerako irauli eta hankaz goratzeko nolako ahalmena duen ikasiko dute ikasleek.

- Hartu lekukoa. Ikasleak egunkarien edukia hankaz gora jartzera animatuko ditugu, hau da, bertan egunero agertzen diren indarkeriazko ekintzen eta ezbeharren ordeztu, albiste onez eta ekintza eredu garriz betetzera.
- Zer garen iragartzen dugu. Iritsi da kanpaina garatzeko unea.

### **BIGARREN PROIEKTUA: "JAI AHAZTEZINA"**

Bigarren proiektua otsailean hasiko da, eta ikasturte amaieran bukatuko da.

Proiektu honen gai nagusia Eukaristiaren ospakizuna da. Proiektuaren azken emaitza izango den ikasturte amaierako jaia antolatzea eta ospatzea bideratuta landuko dugu.

#### **EDUKIAK**

- **Jesusek ahul eta behartsuenei erakusten dien estimua eta begikotasuna.**
- **Eukaristiaren ospakizuna: esanahia, keinuak eta uneak.**
  - Pazko jaia: askapen-istorioa.
- Otorduaren eta ospakizunaren sinbolismoa Biblian.
  - Azken Afariaren esanahia.

#### **ATALAK**

- Goazen! Proiektuaren azken emaitza ospakizun handi bat antolatzea izango da
- Bidelagunak. Taldeen finkatze-fasea da hau, irakasleak aldeztatik diseinatu beharrekoa.
- Interpelatzen gaituzten esperientziak. Proiektuaren parte honek haurren bizi-esperientziak ditu aipagai.
- Irakurtzen gaituen Hitza. Hautatutako Ebanjelioaren pasarteak bildu berri ditugun esperientzia horiek argitzera datoz.
- Gure fedea ulertzen dugu. Proiektuaren atal honetan esplizitu egingo dugu Eukaristiaren sakramentuaren esanahia eta haren sinbologia guztia.
- Kulturak Jainkoaz hitz egiten digu. Artista askok irudikatu dute azken afariaren unea, Jainkoari buruzko euren esperientziatik bertatik begiratuta.
- Eraberrituz. Proiektua janarian eta janariak gizakiarentzat duen garrantzian oinarritzen denez, elikagai faltaren arazoa aztertuko dugu.
- Hartu lekukoa. Esperientzia horien ezagutzan sakonduko dugu.
- Zer garen iragartzen dugu. Atal hau azken jaia prestatzeko erabiliko dugu osorik.

**METODOLOGIA** [edukien antolaketak, jarduerak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denborekin antolaketak, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

**METODOLOGÍA** [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Erligioko ikasgaia hasten da norberaren identitatea bereizten, baita inguruko fisiko eta kulturala baloratzen ere.

Irakasleak azalduko ditu egin beharreko lanaren ildo nagusiak, eta ikasleek lana gauzatu dute, bakarka nahiz talde handian, dagokionaren arabera. Hala, eskoletako lan saioak

lantzen ari garen trebetasunen eta unearen arabera aldatuko dira. Nolanahi ere, ikasleak izango dira irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren protagonistak.

- Ikasgelan harreman positiboa sustatuko da.
- Ikaskuntza prozesuan ikasleak autonomoak izan behar dira.
- Ikasgelan, behar desberdinak dituzten ikasleen aniztasunari arreta eskainiko da.
- Lanarekiko motibazioa piztuko da.
- Bilatuko da egiten denaren eta egiteko moduaren arrazoia uler dezaten zertarako den.
- Norberaren buruarekiko estimu handiagoa izatean eskainiko da.

Proiektuan zehar ikasleek talde handian koordinatuta eta ezinbestekoak diren hainbat rol betez egingo dute lan, helburu izanik azken emaitza edo produktu komuna diseinatzea.

Metodologiak ikasleen motibazioari eta gaitasunen garapenari laguntzen diena izango da, eta irakasteko baliabide egokiak erabiliz.

Banakako lana eta taldekoa; eskuz egitekoa, esperientzia bidezkoa nahiz bisuala eta kontzeptualak. Pixkanaka eta kontu handiz, edukiak barneratu, eguneroko egoeretan oinarritutako adibideen bidez, testuinguruan.

Ikasitakoa askotariko jardueretan aplikatu: arrazoitzea, lankidetzat-taldea, sendotzeko eta sakontzeko jarduerak, etab.

Irakurtzeko ohitura eraginkorra lortu nahi da, eta irakurriaren ulermena eta analisi kritikoa bultzatu; horretarako, egunero eskainiko zaio denbora-tarte bat.

Proiektu bakoitzean **honako atalak** betetzen dira:

**Hasierako esperientzia.** Sentimenduak eta emozioak adierazten dituzten egoerak hartzen dira abiapuntu. Unitate osoan zer emozio landuko den adierazten da. Behaketa da oinarria, ikaslearen bizipenean sakontzeko. Ikaslearen barne-mundua zein inguruko ingurunearena nolakoa den jakitea sustatzen da.

**Bibliako kontakizuna.** Bibliako edukiak kasuan kasuko unitateko emozioaren ikuspuntutik eta garatuko diren edukiekin batera lantzen dira. Kontakizuna ikus-entzunezko baliabide baten bidez landu daiteke, testua hobeto uler dezaten. Behaketa-jarduerak, irakurriaren ulermenerako jarduerak eta glosarioak ditu kontakizuna uler dezaten.

**Kristauon hausnarketa.** Baliabide tipografikoak eta idazketakoak apropos aukeratu dira, ideia nagusiak edo termino garrantzitsuenak ahalik eta errazen identifika ditzaten ikasleek. Edukien garapenean, emozioaren, Bibliako edukiaren eta eduki teologikoaren arteko sintesi bat egin da. Ikasleek beren kabuz ikas dezaten bultzatzeko, ikasleek edukien ulermen-prozesuari buruz hausnartzeko jarduerak proposatu dira. Atal honetan aurkezten den pertsonaiak proiektuan landutako kristau-balioak ditu.

#### **Baliabide didaktikoak:**

- "Mundua hankaz gora" eta "Jai ahaztezina" liburuak (Kumi, Ibaizabal)
- Biblia katolikoa formatu fisiko edo digitalean (Bibliako pasarteak eta haien ilustrazioak)
- Ahalmen handiko galderak.
- Artelanak, Historiak, Hainbat kulturatako ospakizunak, Elkarte solidarioak
- Filmak (Billy Elliot), laburrak
- Aukeren kutzako elementuak.
- Proiekturako prestatutako ikus-entzunezko baliabideak.
- Web baliabideak.

<p><b>EBALUAZIO-TRESNAK</b> [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p><b>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN</b> [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p><b>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK</b> [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p><b>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN</b> [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>- Behaketa sistematikoa ikasgelako egunerokoa.</p> <p>- Ikasleak ebaluatzeko jarduerak (liburua), fotokopiatzeko fitxak, koadernoak. Jarduerak ordenaturik, garbi eta garaiz aurkeztea.</p> <p>- Ahozko eta idatzizko proba objektiboak.</p> <p>- Ahozko eta plastikako produkzioak.</p>	<p>-Eguneroko lana ikasgelan : Talde- lanetan, proiektuetan...duten parte-hartze maila%50</p> <p>- Portaera: besteak errespetatzea, interesaturik izatea, azalpeneei arreta jartzea, ikaskideekin ondo moldatzea eta gogor lan egitea. % 30 izango da.</p> <p>. -Ahozko eta idatziak probak %20</p>
<p><b>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK</b> [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekuerazio-sistema...].</p> <p><b>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN</b> [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<p>Irakasleek ebaluatuko dituzte bai ikasleen ikaskuntzak bai irakaskuntza-prozesuak zein norberaren irakasle-jarduna.</p> <p>Laguntza berezia behar duen ikasleren bat egotekotan neurri egokiak hartuko dira ikasgaiaren helburuan lor dezan.</p>	

## Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa

### Programación didáctica anual/de curso

<b>ikastetxea:</b> <i>centro:</i>	Nuestra Señora del Rosario	<b>kodea:</b> <i>código:</i>	014583
<b>etapa:</b> <i>etapa:</i>	Lehen Hezkuntza	<b>zikloa/maila:</b> <i>ciclo/nivel:</i>	2. zikloa LH 4
<b>arloa/irakasgaia:</b> <i>área / materia:</i>	ARTE HEZKUNTZA- Musika eta Plastika		
<b>osatutako arloak/irakasgaiak</b> <i>áreas/materias integradas</i>			
<b>diziplina barruko oinarriko kompetentzia elkartuak</b> <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.</li> <li>2. Konpetentzia motorra.</li> <li>3. Konpetentzia artistikoa.</li> </ol>		
<b>irakasleak:</b> <i>profesorado:</i>	Jesús Torres eta Gorka Kareaga	<b>ikasturtea:</b> <i>curso:</i>	2020/ 2021

Zeharkako kompetentziak / *Competencias transversales:*

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.



2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
5. Izaten ikasteko kompetentzia.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
<p>1. Arteak eta kultura bisual eta musikalak norberaren ideiak, sentimenduak eta bizipenak komunikatzeko eta espresatzeko ematen duten aukera ugarietzat hartzea, eta horretan, komunikazio-gaitasunean, pentsamendu kritikoan eta autokonfiantzan aurrera egitea.</p> <p>2. Arte-hizkuntzen oinarrizko teknikak, baliabideak eta konbentzioak ezagutzea eta erabiltzen jakitea, eta teknologia berriek sormen-lanetarako ematen dituzten aukera ugariak aprobetxatzea.</p> <p>3. Arte-adierazpenetan erabili ohi diren teknikak, baliabideak eta konbentzioak kultura bisual eta musikalean duten presentzia aitortzea eta balioestea, horrela arte-adierazpenok hobeto ulertu, haietaz are gehiago gozatu, eta erreferente estetiko berriak izateko.</p> <p>4. Trebetasun intelektualez, ekimenaz, irudimenaz eta sormenaz baliaturik, norberaren nahiz besteen sentimenduetan edo artelanetan oinarritutako ideiak birsortzea, norberaren sormen-lanak aberasteko.</p> <p>5. Sormen-lan zenbait emaitza lortzeko beharrezkoak diren prozedurak planifikatzea, ebaluatzea eta egokitzea, eta horrek guztiak dakartzan erronkez jabetzea.</p> <p>6. Arte-adierazpenen eta kultura bisual eta musikalaren funtzio sozial ugarien berri jakitea, eta adierazpenok guztiok norberaren eta besteen bizitzan duten presentziaz ohartzea, arteak gaur egun eta historian zehar gurean eta beste kultura batzuetan zer-nolako garrantzia duen eta izan duen ulertzeko.</p>	<p>1. <b>Hizkuntza artistikoak komunikazio-bide eta espresio-bide unibertsaltzat hartzeko gai izatea, eta hizkuntza horiek modu arrazoituan erabiliz egitea bere arte-ekoizpenak.</b></p> <p>1.1 Modu kontzientean ikertzen eta konparatzen dituen irudien, musikaren, mugimenduaren eta bestelako elementuen ahalmenak, adierazteko eta komunikatzeko premia asetzeko.</p> <p>1.2 <b>Hitzez eta idatziz adierazten dituen arte-ekoizpen bisual eta musikalko askotarikoek sorrarazten dizkioten emozioak eta sentimenduak.</b></p> <p>1.3 Arte-ekoizpenen eta adierazpenerako eta komunikaziorako xedeen arteko loturak egiten dituen.</p> <p>2. <b>Bere ekoizpen bisual eta musikaletan unean-unean dituen premia espresibo eta komunikatiboetarako egokiak diren teknikak, baliabideak eta konbentzioak erabiltzen jakitea eta txukun-txukun argudiatzea bere hautuak.</b></p> <p>2.1 <b>Proposatutako komunikazio- edo adierazpen-xederako egokiak diren euskarri, prozedura eta teknikak erabiltzen dituen.</b></p> <p>2.2 Egiten ari den proiektuaren xedeari lotuta erabiltzen dituen hizkuntza plastiko, bisual eta musikalen baliabideak.</p> <p>2.3 <b>Musika sortu eta interpretatzean, musika-notazioaren oinarrizko elementuak erabiltzen dituen erritmo- eta melodia-eskema xumeak irakurtzeko.</b></p>

7. Soinu eta irudietatik abiatuta sortutako ekoizpenek ingurune fisiko eta sozialarekin zer-nolako loturak dituzten azaltzea eta kritikoki aztertzea, ekoizpenok gizon-emakumeon bizitzan zer-nolako eragina duten ulertzeko.

8. Norberak egindako artelanetan konfiantza izatea, lanean emandako denboran norberak egindakoaz gozatzea, eta horrek guztiak norberaren eta talde osoaren hazkunde pertsonalari egiten dion ekarpen itzelaz jabetzea, autoestimuan aurrera egiteko eta norberaren ideien eta sentimenduen berri emateko gaitasuna hobetzeko.

9. Euskal Herriko nahiz beste herrialdeetako kultura-ondareko arte-adierazpenak ezagutzea eta balioestea, eta adierazpenok zaintzeko, babesteko eta etengabe berritzeko lanetan besteekin batera kolaboratzea, eta horretan, norberarenaz bestelako kulturetako pertsonekin lan egiteak eta esperientzia artistikoak trukatzeko denok aberasten gaituela ohartzea.

**2.4 Kalitatezko interpretazioak egiten saiatzen da musika egin, ahotsa eta musika-tresnak erabili eta gorputz-adierazpena lantzean.**

2.5 Geometriaren baliabideak erabiltzen ditu espazioaren, objektuen eta bestelako elementuen irudikatze-premiekin dakartzaten arazoei irtenbidea emateko.

3. **Musikan eta arte bisualetan baliabide teknikoekin eta hizkuntza artistikoarekin lotutako arazo eta auziei zer konponbide eman zaien jakitea eta konponbideok erreferente estetikoetatik hartzeko gai izatea.**

3.1 Kultura musikal eta bisualeko obren barne-antolamenduaren berri izateko interesa sentitzen du.

**3.2 Musika-konposizio eta obra bisual eta plastikoetan erabili diren teknikak aztertzen ditu, eta moldatu egiten ditu bere sortze-lanean.**

3.3 Uneko eta beste garai batzuetako arte-adierazpenak aztertzeko eta balioesteko interesa ageri du.

4. **Bere arte-ekoizpenetan irudimenez eta ekimenez jokatzeko bere ideien, sentimenduen eta bizipenen berri emateko.**

4.1 Aldaketak egiten ditu elementu eta baliabideetan, bestelako esanahiak lortzeko.

4.2 Irudimena du bere bizipenak eta egin dituen aurkikuntzak adierazteko.

4.3 Beste pertsona batzuen ideiak bilatzen eta berrerabiltzen ditu, bere sormen-premietara egokituta.

**4.4 Musikako errepertorio propioa garatzeko interesa erakusten du.**

**4.5 Lan xumeak sortzen ditu, irudietan, soinueetan eta kontaketen oinarrituta.**

**4.6 Ahoz eta idatziz azaltzen du artelan ezberdinak igartzen dizkien sentimenduak eta emozioak.**

5. **Landu beharreko proiektuaz gogoeta egiteko gai izatea.**

	<p>5.1 Gogoan du zer lan egin behar duen eta lan hori nola egin hausnartzen du.</p> <p>5.2 Akatsak hautemanez gero, prozesuak berrabiarazi edo berrantolatzen ditu.</p> <p><b>5.3 Hainbat iturritan bilatzen ditu lan egiteko behar dituen baliabideak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabilia.</b></p> <p><b>6. Arte-adierazpenen bidez zenbait ideia, gertaera, esperientzia eta bizipen sormenez adieraztea, eta horretan, aintzat hartzea egiten dituen ekarpenek bere buruaren eta talde osoaren hazkunde pertsonala dakartela.</b></p> <p>6.1 Ideia pertsonalen ekarpena egiten du, konfiantzaz, auzi artistikoak erabakitzeko.</p> <p>6.2 Eginaren ekinez sortutako produktuek dakarten satisfazioa bizi du.</p> <p><b>6.3 Aktibitate artistikoetan talde-lana eta ekarpen pertsonalak duten garrantziaz jabetzen da</b></p> <p><b>7. Hurbileko esperientziak oinarri hartuta, historian zehar eta gurean nahiz kanpoko kulturetan sortutako kultura bisual eta musikalek izandako funtzio ugariak identifikatzea.</b></p> <p>7.1 Garai askotako eta euskal ondareko eta beste kultura askotako artelan bisual eta musikalen erlazioak egiten ditu, haien funtzio sozialari erreparatuta.</p> <p><b>7.2 Erabileraren arabera sailkatzen ditu dokumentu bisualak eta musikalak.</b></p> <p>7.3 Baliabide formal, bisual eta musikalen erabilera aztertzen eta arrazoitzen du, produktu artistiko edo mediatikoen zentzua osatzen laguntzen duten aldetik.</p> <p><b>7.4 Komunikabideek erabilitako irudiek eta musikak igorritako mezuen helburuak identifikatzen ditu.</b></p> <p><b>8. Ikuspegi kritikoz ulertzea artelanen ekoizpenean zer-nolako garrantzi eta eragin itzela duten faktore sozialek</b></p>
--	--

	<p><b>(botere- eta genero-harremanek, ideologiek...).</b></p> <p>8.1 Arte eta musika gaietan emakumeen ekoizpena urria izatearen arrazoiak ematen ditu.</p> <p>8.2 Obretan ageri diren gizarte-arazoei buruzko galdera edo itaunak egiten ditu.</p> <p>8.3 Ikuspegi kritikoz balioesten ditu zenbait irudi- eta soinu-produkzioek pertsonengan duten eragina.</p> <p><b>9. Jatorri eta kultura askotariko arte-adierazpenen arteko lotura estuak ezagutzea, eta hori elementu aberasgarritzat eta behin eta berriz errepikatzen den prozesu historikotzat hartzea.</b></p> <p>9.1 Kulturen eta gizarteen arteko erlazioak identifikatzen ditu zenbait arte-adierazpenetan.</p> <p>9.2 Euskal Herriko artearen eta tradizioen gaineko interesa ageri du eta kulturen dibertsitatea balioesten eta errespetatzen du.</p>
--	--

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

**SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS** [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

Gaur egungo egoera dela eta, hainbat eduki eta baliabide metodologiko egokituak izan dira.

lazko ikasturteko hirugarren hiruhilabetean landu ez ziren, eta oinarritzkoak ziren zenbait eduki gehituak izan dira, eta irailean hauen birpasaketa, berreskurapen eta errefortzu jarduerak burutu dira.

## **ADIERAZPEN PLASTIKOA**

### **Erreferente plastiko eta bisualak hautematea, ulertzea eta interpretatzea**

- Artelanek izan eta iradokitzen dituzten ezaugarri formalak, teknikoak eta materialak ikertzea, haiek berregiteko edo artelan berriak sortzeko.
- **Objektuen eta natura-elementuen ahalmen plastiko eta adierazpenezkoak arakatzea.**
- Protokolo hitzezko eta ahozkoak egitea elementu naturalen eta artifizialen alderdi, balio eta ezaugarri ageriko eta ezkutukoak behatzeko.

- **Bolumenak planoan irudikatu edo adierazteko moduak aztertzea, ikuspuntuaren edo espazioan duten kokapenaren arabera.**
- Arteari eta kultura bisualari buruzko albisteak irakurtzea eta eztabaidatzea.
- **Irudiei eta arte-produkzioei buruzko informazioa bilatzeko interesa izatea.**
- Jarrera ireki eta malgua izatea irudiak eta arte-adierazpenak aztertu eta balioestean.
- Publizitatean, interneten, bideoetan, bideojokoetan, aldizkarietan eta komunikabideen bestelako produktuetan erabiltzen diren irudien balioespen kritikoa egitea.
- Artelanak pertsonen komunikazio-bitartekoak eta kultura-nortasuneko balioak transmititzeko tresnak direla ulertzea eta balioestea.
- Artea eta adierazpen plastikoa balioestea, ingurumenaren kaltetzearen, indarkeriaren eta bestelako arazoaren gainean hausnartzeko espazioa den aldetik.
- **Sentikortasuna eta errespetua adieraztea norberaren eta besteren bizipen estetikoaren adierazpenekiko.**

#### **Arte-adierazpen plastiko eta bisualak ekoiztea, espresatzea eta sortzea**

- **Teknika mistoak erabiltzea obrak sortu eta ideiak eta sentimenduak adierazteko.**
- **Askotariko dokumentazioa (testu idatzietako informazioa, irudiak, artisten obrak, inguruneen iturriak, etab.) bilatzea eta erabiltzea, ikerketa-lanak egiteko.**
- Proposatutako edukiak lantzeko erabiltzea materialak eta teknikak, eta egindako aurkikuntzak adierazpen plastikoetan erabiltzeko interesa izatea.
- Irudiak eta objektuak berregitea, ideiak eta sentimenduak adierazteko, eraldatze grafikoaren eta plastikoaren bidez, eta birziklatzearen dimentsioa aintzat hartuta.
- **Koloreen ezaugarri eta erlazioen gaineko jakintza oinarrizkoak erabiltzea.**
- **Bolumenek eta espazioek argiaren eraginez izaten dituzten aldaketak ikertzea.**
- **Testurak erabiltzea objektuen eta irudien ezaugarriak zehazteko.**
- **Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea irudiak bilatzeko, irudien gaineko dokumentazioa biltzeko eta egindako lanak zabaltzeko.**
- Hizkuntza plastiko eta bisualaren elementuak antolatu eta haiek erabiltzeko modu berriak ikertzeko gogoia izatea.
- Gainerako pertsonen iritziekiko eta lanekiko errespetua eta interesa adieraztea, norberaren ezagutze-prozesuaren parte diren aldetik.
- Jarrera originala eta berezkoa izatea, eta, artelanak sortzean, modu pertsonal eta autonomoan adieraztea ideiak, sentimenduak eta bizipenak.
- Norberak artea landu eta egiteko duen ahalmenean konfiantza izatea eta norberaren eta besteren ekoizpenak balioestea.
- **Ikasgelan ordena eta garbitasuna balioestea.**

#### **ADIERAZPEN MUSIKALA**

- **Pentagrama eta musika notak.**
- **Musika irudiak , isiluneak, balioa eta iraupena.**
- Erritmogramak
- **Konpas motak.**
- Mindfulness
- **Musika tresnak. Sailkapena.**
- Euskal musika tresnak.
- Munduko instrumentuak
- Musikograma
- **Ostinatoa. Ostinatoak sortzea, istorio soinudun bati laguntzeko.**
- **Musika-elkarteak (Bakarlaria, bibotea, hirukotea, laukotea, boskotea...)**
- **Metalezko haize - instrumentuak.**
- **Zurezko haize instrumentuak.**
- **Klabea, konpasa, lerro banatzailea, zuria, zuri isilunea, beltza, beltza isilunea, kortxea eta kortxea isilunea.**
- Dinamika: piano, mezzo forte, forte, crescendo eta decrescendo.
- Abiadurak: adagio, andante, allegro, accelerando, ritardando.
- Konpositoreak: Antonio Vivaldi eta Edvar Grieg, Antonín Dvorák, Wolfgang Amadeus Mozart.
- Forma bitarra, lied forma eta Rondo.
- Ahots elkarteak.
- **Soinubakarra, abesbatza/ bakarlaria, oihartzuna, galdera-erantzuna eta kanona.**
- **Bi, hiru eta lau aldiko konpasa.**
- **Nota hauek pentagraman: fa, sol, la, si, do´ eta re´.**
- **Nota irudien iraupenen arteko baliokidetasuna.**
- Ligatura.
- **Hari instrumentuen familia (igurtzia, pultzatua eta kolpekatua).**
- **Lerroak eta tarteak, eta lerro osagarriak.**
- **Hari, haize eta perkusio instrumentuak.**

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

**METODOLOGÍA** [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Lehen Hezkuntzako, ikaslea ikusizko mezuaren ulermena lantzen hasten da (oso garrantzitsua da hori, gure gizartean gero eta gehiago erabiltzen den baliabidea baita), eta baita hizkuntza plastikoa ere, bere ideiak eta sentimenduak adierazteko, eta, horrela, bere adierazpen eta sormen gaitasunak garatzen ditu.

